# KATUAK

## KATUEN ARRAZA GUZTIAK



A.D.E.V.E.

# KATUAK

# KATUEN ARRAZA GUZTIAK

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK
DEFENDATZEKO ELKARTEA

*Egilea:* **Fernando Pedro Pérez**



**Egilea:** Fernando Pedro Pérez.
**Diseiñua**: Cristina Ruiz . **Argitaratzailea:** ADEVE.
**Lehen argitaldia:** 2022ko maiatzan.
**ISBN:** 932546-4-9. **Legezko gordailua:** BI-901-22.

# KATU SIAMDARRA

Benetako arrazako katuak siamdarrak dira. Haiek, Siamengo aspaldiko Erresumatik bere jatorria dute, gaur Thailandia. Bangokeko Thai Nazio-Bibliotekan, liburu bat gordeta dago -Katu-olerkiak- 1350. urtean idatzita, liburu hau katuei buruko erregistrorik zaharrena dela esan daiteke. Liburu honetan, deskribapen oso zehatzak aurki daitezke, eta katu mota bati, autoktono eta preziatua bezala goraipatzen zaio: gorputzaren itxura luzea eta liraina duen katu bati, eta halaber, burua triangeluarra eta belarriak zorrotzak dituen katu bati, katu hau eta Europako katu arrunta oso desberdinak dira. Liburuan ere aurki daitzeke felido hauen kolore desberdinak: grisak, marroiak, tigrearen larrua bezala, eta gero bitxikeria bezala agertzen da errealeko familiako kideek daukatena: zuria kolorekoarena, zamo ilunekin aurpegian, eta begi urdin handiak.

Ale hauetan orbangabe koloretakoa mutazio batengatik dator: Himalaiako albinismoa.

Mutazio hau ere beste animaliarengan gertatzen da, karraskariengan batez ere, eta gene errezesibo baten bidez oinordetzan hartzen da.

Lehenengo Katu-Erakusketan, Londreseko Crystal Palace-n ospatua, 1871. Urtean, katu siamdarrak aurkezten ziren, baina orduan, Siamengo katu guztiak modu horretan deiturik izan ziren: bai albinoak bai koloreztatuak. Dena den 20ko hamarkadaren amaieran Inglaterrako Katu Siamdarraren Kluban, ideia bat egiaztatu zuten: siamdarra izateko ezaugarri hauek bete behar izan zituela: katu zuriak, zamo ilunekin aurpegian, eta begi urdinak, hau da, handik aurrera ekialdeko katuei edo Thailandiako katu albinoei katu siamdarrak deituko zaiela.

## Aurretik sumatu ezin diren erreakzioak

Katu siamdarren ezaugarri bereziek haiei benetako arrazako felidoaren tituloa ematen dizkiete. Bere gorputza luzea da. Bere atzeko gorputzadarrak luzeak, argalak, eta aurrekoenak baina altuago zamarrak dira. Muskulatura sendoa da, eta burua triangeluarra belarri zorrotzekin. Bere begiak urdin- biziak dira eta halaber, lapranak eta amanda itxurakoarekin. Bere ibilkera dotorea da oso.

Katu hauen izaera konplexua da, izan ere, batzuetan aurretik sumatu ezin diren erreakzioak. Egun batetik beste egun batera, beren bizimodua, jolasak eta maitatzeko modua alda daitezke, nahiz eta bere jabearekin maitasunezkoak eta hiztunak izan.





# KATU SIAMDARRA

Generalki, siamdarrak bere maitasun osoa familiako kide bakar bati ematen dio, eta besteekin axolagabetasuna erakus dezake. Bere nagusiarengandik banatuta geratzen bada, hiltzeko gai da.

Bere izaera hipersentibera dela aintzakotzat hartu behar da, eta hau dela kausa benetako leuntasunarekin tratatua izan behar da.

Nortasun handia du eta etxekotzea erraza da. Soinu eta imintzio asko erabiltzen ditu adierazteko, bestalde, bere izena ezezik, gizakion hitz asko ere jakitera ailegatzen da.

Portaera ikasteko gai den arrazarik aproposena katu siamdarrarena da. Hau dela kausa, askotan txakurrekin konparatzen dira, izan ere gutxi diren arrazek zeinek uhala onartzeko gai diren

Katu hauek ere jeloskorrak eta menperatzaileak dira oso. Helduak direnean katu gazteenak oso gutxi gustatzen zaizkie. Katu siamdarrak apartamentu batean oso ondo bizi daitezke, baina askatasuna maite dutenez, askotan azkazalak kanporatuz edo altzari batetik beste altzari batera jauzi eginez asaskatzen dira. Lorategi hezi bat ez badago, etxetik korrika egiteko, aske utzi behar da. Araldi-garaian katua siamdarrak ihez egiten du, orduan kontu handiz zelatan egon behar da.



### Elikadura eta zainketak

Ez dio eman behar gehiegi-janaririk, izan ere, bere kasuan lirain egotea eta edertasuna mantentzea oso garrantzitsua da. Haragia ematea ez da komenigarria, batez ere denboraren poderioz bere ilajea iluntzera joaten da. Garrantzitsua da halaber, arrainak, lekale egosiak eta arroz egosia jan behar ditu. Bere bizitzaren lehenengo hilabeteetan, bitaminak errakitikoa ez hazteko hartu behar ditu. Modu honetan erraza da 15 edo 20 urte izatera ailega daitekeela.

Zainketei dagokienez, esan dezakegu: egunero ilajea eskuila gogor samarrekin eskuilatzea oso garrantzitsua dela, horrela hautsa ez ezik ile hilik ere ken diezazkiokegu ( hauek muda-garaian oso ugariak dira).



# EUROPEAR KATUA



Europear katuaren jatorria gezurrezkoa da, Afrikako edo Libiako katuarengatik datorrela ematen du (Libiakoa erromatarrek orain dela 2000 urte kontinente zaharrean sartu zuten). Europako arrazarik benetakoena da, izan ere aspaldiko ezaugarriak, hautaketarik gabe eta ez da genetika-azterketarik ere kontserbatu ditu. Katuei buruzko lehenengo liburu osoan –Europear Shorthair-a-, Inglaterran, joan zen mendean, argitaratua izan zen, Munduko arrazarik garrantzitsuena dela aintzakotzat hartu zuten.

Europear katuak ile motza eta fina du, baina batzuetan, bere ilea zurda bezain gogorra izan daiteke. Bere gorputza ondo osatuta dago, gihartsua da, bularra zabala du eta gorputzadarrak sendoak dira. Bere burua biribila da, bere masailak oso garatuak dira eta belarriak txikiak eta zorrotzak ditu. Sudurra motza da eta begiak handiak eta adiezgarriak dira. Bere begien tonua eta bere ilajearena antzekoak dira. Buztana bere oinarrian motza eta lodia da.



### Otzandutzekoa erraza da

Europear katua oso erangikorra, ikusbera eta trebea da, gainera kemen handia du.

Arratoiak eta beste animalia ehiztatzeko gai da, izan ere, honetarako ahalmen handia du.

Katu hauen gehienak ez direnez haztegietan jaiotzen, bere izaerak ez dauka egonkortasunik genetika-hautaketagatik.



Nahiz eta indibiduo bakoitza bere kideareна desberdina izan, denek gauza bat amankomunean dute: ortzan dutzekoa erraza dela.

Hotza ondo jasatzen dute eta beren marrakak atsegin bihurtzen dira. Europear Katuen arrazarik urtetsuenetariko bat da: bere indibiduoak hamalau urte edo gehiago bizi izan daitezke.

Animalia hau edozein bizitza mota bati molda dakioke, baina horretarako baldintza batzuk bete behar dira: bere nagusiek maite behar dutela, bere ohiturak erres-

# EUROPEAR KATUA

petatu behar dituztela eta halaber, ekintza-askatasuna utzi behar dutela.
Lagunen artean egotea asko gustatzen zaio, emeei batez ere. Emeek familia oso-arekin maitatu ohi dute.
Bere elikadurak ez dauka arrazorik. Denetik jaten du: esnea eta haragia batez ere, dena den gluzidoak, mineralak eta bitaminak ematea komenigarria izan daiteke, kumeei eta bular-emaileei batez ere. Naiz eta oso txikia izan, kumeek, haragia jaten ikasi ohi dute.
Zainketei dagokienez esan dezakegu sarritan eskuilatzea komenigarria dela, urrun aldiko egun batzuk eta gero batez ere.

**Borrokolariak, autoritarioak eta gorrak**

Europako arrazan kolore eta marrazki asko ezagutzen dira, haien artean beltza , albinoa, tigrearen larrua bezala, marmora-doa, eta dortokaren ezkata.



Europako katu beltza motarik ugariena da. Bere begiak, horiak edo laranjak izan ohi dira. Alerik onenak siamdar arrazarekin gurutzatzeengandik etortzen dira. Animaliak borrokalariak eta kementsuak dira. Zuriak eska-sagoak dira eta ia-ia beti gorrak dira. Bere izaera autoritarioa eta borrokolaria da. Begi kolore desberdinetakoak dituzten aleak izugarrizko ugaltzaileak direla esaten dute, izan ere begi urdinak edo laranjak dituzten kumeak ugal ditzakete.
Beren ilajea ondo kontserbatzeko talkoko hautzekin eskuilatu behar da.
Badago ere Europako katu zuri mota bat , katu honen begiak oso urdin-argiak dira eta beginiek gorri isladak dituzte. Albinoak dira. Albinoek katu zuriekin konparatuz abantaila bat dute: denboraren poderioz gor ez direla bihurtzen.
Tigrearen larruaren antzekoa duen animaliak, tigre bat miniaturan ematen duela esan daiteke, hau dela kausa bere larrua hain preziatua da. Konpainia-katu leiala eta ehiztari bikaina da. Bere gorputza sendoa, indartsua, eta gihartsua da. Bere burua zabala da eta masailak oso nabarmenak dira.





Marmorizadoen gorputza, tigrearen larruaren antzekoak diren gorputza baino luzeagoa da eta beren masailak baino nabariagoak dira. Garondotik buztanara arte , bizkarraldea beltz-kolorekoa hiru marrarekin markaturik dago. Berezko ehiztariak ere dira: muskerrak, txoriak, karraskariak, eta sugeak harrapatu ohi dituzte. Katu beixak oso urriak dira, eta sorte ona ematen dutela esaten dute. Bere burua oso biribila da eta begiak kobre-kolorekoa bizi-biziak dira.
Bukatzeko esan daiteke, Dortokaren ezkata mota barruan dauden Europear katuen mantuaren koloreak , eta dortokaren oskolaren koloreak, antzekoak direla. Koloreak hauexek dira: beltza, gorria eta beixa. Bere begiak laranja biziak dira. Mota honen arrak bitxiak dira oso, eta bizi direnak antzuak dira. Hau dela kausa bere ugalketa lortzeko, aipatutako hiru koloretatik bat eduki duen Europako katu kolore bakarrak erabiltzen du.



# KATU PERSIARRA

Katu persiarrari "katuen printzea" deitzen diote, izan ere bere edertasuna oso nabaria da. Felido txiki honek denetik dauzkala esan daiteke: Bere ilajea luzea eta zetaren antzekoa da ( ferekatzeko oso atsegina da). Bere begirada argitsua eta zakona da. Nahiz eta begiradak barealdia isladatu, bere izaera nahiko gogorra da eta estimu handia behar du katu honek.

Halaber, Persiako katuak atseginak ez ezik soziableak eta goxoak ere dira. Gainera beren jabeekin izugarrizko fideltasuna gordetzen dute. Felido bizkorra eta trebea da. Azkazalak ateratzeko ohitura ez dauka.

Bere gorpuzkera aristokratikoa da, bere bidean gurutzatzen diren animaliekin bere axolagabekeria erakusten du. Bakarrik basati bihurtu direnak arratoien bila ehiztatzera joan ohi dira. Katu persiarra edozein apartamentutan edo hiriko etxetan bizi daiteke.

Bere morfologiari dagokionez esan dezakegu: bere burua zabala eta mardula dela eta
masailak nabarmenak direla. Lepoa sendoa eta poteretsua da, sudurra motza da eta belarriak txikiak eta urrunak.

Atentzioa ematen diguna bere begi biziak eta argitsuak dira, gainera begiak eta ilajearen tonua antzekoak dira. Mantua lepoan, bizkarrean eta hanketan oso ugaria da.

Persiako katuaren koloreek baritate asko dituzte beltz-koloretik gorrira edo urdinara arte joaten dira ( gurutzatzeen ondorioa da). Etxeko katuek ezaugarri tipikoa dute:





# KATU PERSIARRA

ile luzea. Ez dago felido basatirik ile luzearekin, elur-pantera izan ezik.

### Loditasunaren arriskua

Katu persiarrari elikatzeko modua arrazoiduna ez ezik, orekatua ere izan behar da. Katuek gehiegi jaten badute, obesitatea ez ezik bihotz-desoreka ere agertuko dira.
Dieta onena egiteko, egunero 100 gr haragi edo arrain eman behar dizkiogu. Honi, arroza, lekale egosiak eta esnea gehitu behar dizkiogu. Bere bizitzaren lehengo urtean bere dieta osatzeko, tanta polibitaminiko batzuk eman behar dizkiogu.
Zainketa berezienetariko bat, egunero bere ilea eskuilatzea, da. Horretarako zurdazko eskuila erabili behar da, izan ere, arantza metalikoak badira bere ilajeari kalte egin diezaiokete. Bere buztana gogoz eskuilatu behar da, izan ere, leku honetan arkakusoak eskutatzen dira. Bere ilea ondo edukitzeko, xanpu lehorra erabili behar da, baina katua oso zikina badago ur epelarekin eta xaboi neutroarekin garbitu behar dugu. Lehen bait lehen lehortu behar da.
Katukumeen ilea sei aste barru hazten hasi ohi da. Handik aurrera ilea eskuila daiteke eta inoiz ez lehen.
Katu persiarrak jaiotzean, delikatuak dira oso, eta zainketa bereziak, bere bizitzaren lehenengo lau hilabetetan gutxienez, behar dituzte.
Sabelaldian eta erditzean bereziki, amari aintzakotzat hartu behar diogu, izan ere, erditzean amari lagundu behar diogu eta erditu ondoren bitaminak eta kaltzioa eman behar dizkiogu arazoak sahiesteko.
Hazleen uztez, katu persiarren senitartekoen artean gurutzatzeak egitea ez da batere ona.
Ale urdinek abortu asko eduki ohi dituzte eta katu akastun batzuez erditzen dira, ile gutxirekin, mutur luzangarekin eta belarriak oso hurbilak eduki ohi dituzte, eta beste genetika-anormaltasun mota asko.



### Persian eginda

Zientifikoki hitz eginez, Persiako katua animalia modernoa da. 1871. Urtean bere hazkuntza agertu zen. 1500 urte arte, Europan ile luzerik zuten katuak ez zeuden. Angorazkoa, Turkiako jatorriaz, 1520. Urtean, geure kontinentera ailegatu zen. Bere arbaso zuzena: Persiako katua, 200 urte pasa eta gero



# KATU PERSIARRA

Persiatik Italiara inportatua izan zen. Pietro della Valle, esploratzaile italiarra, herrialde honetara etorri zenean, katu honetaz maiteminduta geratu zen eta ale batzuk untzira igo zituen.
Espainiara sartu ziren data ezezaguna da. Mende bat geroago, 1800. Urtean, arraza hau Erresuma Batua-ra eraman zuten eta gero arraza hobetzeko angorazko katuekin gurutzatu zituzten, eta ondorioz ilea oso zetaduna zuten Persiako katuak lortu zituzten (hazleek), halaber koloreak dibertsifikatu ziren.
Erresuma Batean katu hauei "longhairs" esaten diete, hau da ile luzea duten katuak. Hantxe Persiako katuak aurkezten duen kolore bana azpi-arraza desberdina hartzen dute.

### Politak baina gorrak

Persiako katuaren mantoa zetatsua eta ugaria da, tonu eta kolore desberdinekin. Hau da bere ezaugarri berezia. Horrela: ile beltza duen katua, uniformea eta disdiratsua errora arte. Ale hauek, eguzkitan behin eta berriro ezin dira jartzen, izan ere, bere kolorea aldatzen da eta marroi bihur daiteke.
Katu persiarra polita da oso eta bere jabeekin oso maitekorra da. Bere izugarrizko begiak kobre-kolorekoak edo laranjak dira.
Felido hauek haztea zaila da, izan ere, katukumeek zazpi hilabete arte bere kolorearen tonu berezia ez dute garatzen.
Ale zurien begiak, urdinak edo laranjak izan daitezke. Begi urdinak dauzkan katu zurien gorputza eta angorazkoaren gorputza antzekoak dira. Bere begi urdin politak beti adi egoten dira, baina jaiotzen direnean entzumen-urritasuna pairatzen dute. Aitzitik, begi laranjak dauzkan katu zuriak ez du entzumen-arazorik.
Begien koloreak, hain zuzen ere, arrazaren desberdintasuna ezartzen du.
Persiako katu urdinaren eta Persiako katu beixaren arteko gurutzatzetik katu hau agertzen da. Bere gorputza sendoa da, bere burua biribila eta hankak motzak. Katu hauek, nahiz bata nahiz bestea, oso garbiak, maitakorrak, sentiberak eta lasaiak dira.
Persiako katurik preziatuena urdina da. Bere begi handiak eta biribilak laranja-koloretako biziak dira, bere gorpuzkera handientsua da, ilajea oso luzea eta zetatsua da. Bere izaera maitakorra eta atsegina da.
Persiako katu zurien eta Persiako katu gorrien arteko gurutzatze selektiboetatik katu beixa agertzen da. Bere mantua marfil-koloreko biziagatik hori-koloretakora arte ibiltzen da.
Eme bat aukeratzeko ordua, ugaltzerako erraztasuna kontutan hartzen dute, aitzitik, arrak aukeratzeko ordua, itxuren edertasunagatik egiten dute.
Gurutzatzeak egin ondoren, Persiako katu gorria lortzea oso zaila da. Beraz, arren koloreak, zuria eta beltza, urdina eta zuria edo gorria eta zuria izan daitezke. Bere gorputzaren beheko atalak, oinak, hankak, bularra eta muturra zuriak dira eta V alderantzikatua egiten dute.





# KATU BURMESA

Katu burmesa, gorenagoa, trebeagoa eta soziableagoa, katuenetariko bat da. Zainketak , eta gorespenak asko gustatzen zaizkio, halaber, kotzez edo trenez joatea edo lehiatilatik , beldurtu gabe, ikustea asko gustatzen zaizkio. Arraza honen aleak atletikoak, ausartak eta bihurriak dira oso. Batzuk kanporakoiak dira, beste batzuk ordea, etxerakoiak, baina katu guztiak maitakorrak, seduzitzaileak, eta oso atseginak dira. Bai ezagunen ferekak bai desezagunen ferekak asko gustatzen zaizkio, baina benetan behar duena, jabe amultsu bat jolasteko da.

Oso moldagarria denez, bai edozein apartamentutan, terraza landarekin badauka batez ere, bai edozein basetxetan, bizi daiteke. Karraskari handiak harrapatzeko eta jateko gai dira. Bere ugalketari dagokio, goiztiarrak direla oso esan daiteke. Emeak bost hilabeterekin araldian egoten dira, eta emeek arrak estaltzea nahi badute, bost kumez, , erditzen dira, batez besteko bezala. Kumeen mantoaren kolorea kafesnea da, gero pizkanaka-pizkanaka mantua iluntzen doa.

Katuen andur batzuek eskeleto-anormaltasun-genetikoak sortarazi dituzte, dirudienez arraza goratzen zenean odolekotasuna mantentzen zihoan, dena den burmes asko hamazortzi urte baino gehiago bizi dira.

Eztariaren azpitik orban zurien agerpena da, garrantzi txikia duen akats bat da, halaber mantoaren orbanak edo marrak agertzen direnak, edo koloreak ilunagoak, begi grisak edo buztana makurtua edukitzea.





### Arrazaren barietateak

Arraza burmesa inoiz ez da arraza arrunta bat, izan ere, betidanik oso askaturik izan da. Pedigri-a eduki zuen lehenengo arraza EEBB-etan izan zen, eta genetiko-ikasketa sakon bat pairatu zuen lehenegoetariko bat izan zen.

Burmes arruntak, batzuetan birmaniarra deiturik, mantu marroi-iluna du. Ipar Amerikan kolor bakarra aintzatetsia da. Aitzitik, Inglaterran kolore edo barietate asko onarturik daude: urdina, xanpaina-kolorekoa, platino-kolorekoa, gorria, beixa, dortokaren ezkata urdina, marroia eta lila.

Ale urdinen mantua grisa eta zilar-kolorekoa

# KATU BURMESA

da, buztanaren eta bizkarraldearen gainean ilun samarra da. Belarriak, muturra eta oinak grisak dira.
Xanpaina-koloretako barietatearen mantua, txokolate-koloretako argia da. Aitzitik, gorri barietarearen mantua, mandarina-koloretakoa da belarri ilunekin.
Platino-koloretako barietatean, kumeen ilajea lila da, baina helduengan, ilajea, grisa arrosa tonuekin agertzen da.
Barietate guztietan bereizgarria bera aurkitzen da: ilajea motza, fina, dentsoa eta disditatsua da (Tiffany baritatean izan ezik, izan ere ile luzea du. EEBB-etan arraza aparta bezala ezaguna dago). Bere ezaugarririk garrantzituena da bere mantu marroia ederra eta zetatsua. Kumeei beren behin betiko aspektua lortzea kostatzen zaie.
Erdipurdiko tamaina du, nahiz eta argala eta dotorea izan, gihartsua da. Ia-la ez dauka gantzik eta indar susmagaitza du. Bere buruak triangeluaren itxura du, gainera motza, estua eta zorrotza da. Bere begirada bizia da eta beren begi handiak eta adierazgarriak, ekialdeko berizgarri nabari bat dute.

### Zainketak eta elikadura

Felido hau oso iraunkorra denez ez ditu behar zainketa berezirik. Bakarrik bere mantua garbi-garbia egon behar da , horretarako linozko ehundura edo eskularru bat ozpinan eta uretan bustita erabil daitezke. Dena den, oso bihurria denez, etxeko istripua sahiesteko kontu batzuk eduki behar ditugu, adibidez ez dugu utziko edozein objetu zorrotz edozein lekutan. Adibidez oso arriskugarria izan daiteke aulki batean ganibeta edo artaziak uztea, aurkitzen bada…
Lurzorura erortzen diren orratzak oso arriskugarriak dira, behar bada arriskugarriena direla esan dezake, izan ere hanka batean edo ahosabaian iltza dakiokete eta gainera irents ditzake.





# KATU BURMESA

Produktu higieniko guztiak eta medizinak katuaren eskuetatik at egon behar dira. Lursorura edozein pilula erortzekotan, katuaren kuriositatea esnatu baino lehen, hartu behar dugu.
Intsektuzidekin, ihintza izateko ordua, kontu handia eduki behar da, nahiz eta etiketan etxeko animalientzat ez dela arrizkugarria ipini.
Burnesa animalia oso txukuna da eta ez zaizkio batere gustatzen zikinkeria,edo usain txarrak. Gehien gustatzen zaizkion leku garbiak direnez, plastikozko edo metalezko kutxa higienikoa bere behartasunak asetzeko eman behar diogu. Kutxaren ondoan zerrakinaren , harearen edo kartoiaren ordez produktu absorbatzaileak erabili behar da, adibidez hare bereziak, oso lodiak, zeinek bere barruan dauden materialek usain txarrak eta likidoak xurgatzen dituzte. Bere elikadurari dagokionez esan dezakegu , egunero 100 gr haragi, beste 100 gr arroza, lekak eta barazkiak emen behar dizkiogula. Hazkundean zehar edozein konplexu bitaminiko ematea komenigarria izaten da.



### Birmaniatik EEBB-etara

Birmaniako Monasterioetan arraza burmesa jainkotzat hartzen zuten. 1930. urtean Birmaniatik (Rangunetik) EEBB-etara arraza honen eme bat –Wong-Mau zuen izena- inportatua izan zen.
Joseph Thomson doktorea katu honen jabea zen, katuaren kolore bakarra asko gustatu zitzaionez, hazleen talde batekin eta genetistekin, programa berezi bat kumeak kontrolatzeko eta Wong-Mau-ren genotipoa ikertzeko egin zuten. Oso goiz arazo bat agertu zen, ar bat Wong-Maurentzat behar zuten eta azkenean ez zeukatenez, katu siamdarrak erabili zituzten. Gurutzatze asko egin ondoren, hiru mota katu lortu zituzten:
Gorputza zurbila eta hankak ilunak dituzten katuak (zeharo siamdarrak), beste batzuk Wong-Mau bezala, ilunagoak, eta bukatzeko, tonu nabar-iluna duten katuak. Benetako burmesak jaiotzen ziren eta gene burmesa ezarri zen.



1936. Urtean, Tomsonek eta beste "gatofilo" amerrikarrak ofizialki katu burmesari pedigri-aren titulua ematea lortu zioten. Nahiz eta Birmaniatik ale batzuk inportatu, oso gutxi izan zirenez, gurutzatze exogamiko batzuk siamdarrekin egon behar izan zituzten. Ondorioz arrazak garbitasuna galtzen zuen, eta 1947 urtetik 1954 urtera arte erregistroa uzten zen. Handik aurrera, katu burmes batzuk Europara esportaturik izan ziren eta Inglaterran, 1952. Urtean nabar-kolorekoa dituzten katuak onartu zituzten. Eta 1960. Urtean urdinak.



# ABSINIAKO KATUA

Absiniarra, arrazarik zaharrenetariko bat da, hunkigarria, polita eta desberdina da, beste katurekin konparatu eta gero. Felido hau oso goxoa, apala eta maitasunezkoa da, halaber, fereka asko behar dituen katu bat da. Bere jabeak berarekin jolastu eta arreta eman behar dio, horrela ez bada goibeldu ohi da eta azkenean isola daiteke edo ihez egin dezake. Generalki pertsona bakar batekin maitatu eta lagundu ohi dio.

Bere izaera bizia eta jostalaria da. Bere familia berriarekin lehenengo kontaktuan mesfidatia izan daiteke, baina begirunez tratatu ondoren eta lasaitasunarekin hitz egiten badiogu, goiz bere izaera ona eta bere izugarrizko adimena adierazten dizkigu.



Inguratzen zaizkion gauza guztiak interesgarria iruditzen zaio, eta berezko ikusnahia betetzen nahi du. Denboraren poderioz, bere jabeak, patzientziaz, joku batzuk edo ariketak irakats diezazkioke.

Bere bizitza apartamentu batean zaila izan daiteke, izan ere leku irekiak behar ditu: lorategiak, basoak, hemen zuhaiztzetara bizkortazunez igotzen ditu. Dena den batera, bere jabearen presentzia behar du.

Pisu batean hazten bada terraza handia landareekin behar du, horrela erosoago eta menpekotasunik gabe sentituko da (ez zaio gustatzen beste katu askorekin bizitzea). Eme bat eta ar bat elkarrekin badauzkagu denbora gutxi barru bereistezinak egingo dira, bata egoten den lekutan bestea egongo da. Emeak ez dira hain emankorrak. Sabelaldian zehar, biziago eta ipurterre bihurten dira, eta hau dela kausa erorketak sahiesteko gehiago zaindu



# ABSINIAKO KATUA

behar ditugu, gainera kontuan hartu behar de arraza honetan, hain aukeratua da genetikoki, ezen oso erraza baita hezurren apurketa pairatzea.
Erditzeko ordua, normalean lagundu behar diegu. Kumaldi banatan lautik bostera bitarteko kume eduki ohi dituzte. Jaiotzean beren ilajea lumaduna da orban ilunekin. Denboraren poderioz, orban hauek desagertzen doaz, edo heldutasunera ailegatzean desagertuko dira. Arraza honen kumeen garapena beste arrazak baino motelagoa da.

**Dietan dagoen katua**

Felido honen gorputza luzea, argala eta armonikoa da. Bere mugimendu arinak eta siamdarrenak antzekoak dira. Bere burua triangeluar samarra da, fina eta luzanga, bere begien kolorea hur-berdeak edo horiak dira. Sudurra iluna da eta belarriak zorrotzak dira. Gorputzadarrak oso finak dira eta bere oinetan kuxin beltzak daude. Bere ilajearen kolorea, erbi-nabar-laranja beltzez punteaketa edo gorri-kobre-kolorekoa marroiz punteaketa da. Dena den,





# ABSINIAKO KATUA

nahiz eta oso bitxiak izan eta Inglaterrako eta Ipar Amerikako hazleek ezagutu ez, barietate urdinak edo beixak ere, egon badaude.
Ale hauek erakusketarako erabiltzen dituzte.
Absiniako katuaren bitxikeria bere ilajean dago, bere mantua punteaketa zamarra agertzen da, izan ere, ile bakoitzearen kromatismoa, kolore baten egiaztatua, bi edo hiru trazogatik moztuta dago. Orduan, bere ilajeak kolorearen ñabardura oso politak erakusten ditu. Buruaren gainean duen orban txiki batek, pumaren itxura ematen dio.
Zainketei dagokie esan daiteke, animalia honek izugarrizko intolerantzia arkakusoei eta kaparrei erakusten diela eta periodikoki merkatuan dauden produktuekin desinfezioak behar dituela. Komenigarria da halaber, ilea eskuilatzea eta igurtzea trapu baten bidez, leuna eta disdiratsua mantentzeko.
Absiniako katuari edozein haragi gustatzen zaio baina loditzen sahiesteko egunero bakarrik 100 edo 150 gr haragi barazki egosiekin eta arroza egositaren pixka bat. Komenigarria da haragi mota batzuk ematea, baita erraiak ere.
Bazkari banan erdi goilarakada garagardoaren legamia eman behar diogu.
Hazkundean, sabelaldian eta edozkitzean zehar, konplexu bitaminikoak eta elikadura kaltzio eta fosforo ugariarekin eman behar dizkiogu.

## Bidaiaria denboran

Denboraren gau ilunaren barruan atxilotua, eta Egiptoko hilobietako freskoetan. jainkotzat irudikatua, Absiniako katuak, Bast Jainkosa felidoari Goiko eta Beheko Egipto gobernatzeko, bere aurpegia eta bere itxura liraina eman zizkion.
XX mendearen amaieran Egiptoko katu zaharren aztarna momifikaturik, Absiniako katuekin konparaturik izan ziren, eta ondorioa bezala beren antzekotasuna ikus zezaketen: ilea urre-kolorekoa zen eta burezurreko egitura ia-ia berdina zen.
Bast Jainkosa felidoaren ondorengo zuzenak (katu handientsuak izanez), 1860. Urtean, Inglaterrako erregimentu batek guda amaitu ondoren, Absiniatik Inglaterrara bidali zuten.
Espeziea lortu zuen arraren izena Zula zen. Patzientzia handiz, ezaugarri antzekoak zituzten katuekin gurutzatze asko, Absiniako katuek arazorik gabe ugaltzeko, eduki behar izan zituzten. 1929. Urtean, arazaren estandarra sortu zen eta “Abyssinian Club”-ak dibulgatu zuen, zeinek, gaur egun bere ezaugarri fisikoak eta izaera hobetzen jarraitzen baitu.
Bigarren Mundu Gerraren hasieran, Europan, Absiniako arraza desagertzear egon zen janaririk ezagatik, izan ere, bere ezaugarri fisikoak eta erbiarenak antzekoak zirenez jendeak jaten zuen, azkenean”katu-erbia” deitzen zioten.1960-1970. Urtean Absiniako katu Britaniarra, berriro gutxitzen hasi zen felidoen leuzemiagatik. Bakarrik EEBB-etan eta Frantzian ale batzuk bizirik geratu ziren eta berriro Erresuma Batua-ra esportaturik izan ziren, izan ere, herrialde honetan katu hau oso preziatua da.
Arraza honen psikologiari buruz ez dakigu ezer ez. Biboteak edo bibrisak oso sentikorrak dira, adibidez, katuaren begiek ez dutenean ezer ikusten, biboteak radarra bezala funtzionatu ohi dira eta hurbil dauden objetuak nabaritzeko gai dira. Arriskuan balego, bibrisak konturatu dira eta beharrezkoa bada Absiniako katuak bere ikusmena babes dezake. Faktore honek beste batzuek bezala, milurtekoren zehar, jatorri felidoari babesa ematen zioten.



# ANGORAZKO KATUA

Angorazko katuaren edertasuna, bere gorpuzkera aristokratikoa eta berezko goxotasuna eta adiskidetasuna lagunkide bereiztezin bihurtu dira. Etxekoa, oso nagia trebea eta mantsoa da, isiltasuna eta pakea gustatzen zaizkio. Horregatik jabe maitagarri bat, zeinek bere lasaitasuna errespetatu ohi baitu, behar du.

Felido honen ilajea, sabelan eta buztanan oso dentsoa eta zetatsua da. Udan, angorazko katuak bere ilea, parra-parra muda egiten du, eta batzuetan ile motza duen katu bat ematen du buztana iletsuarekin. Aitzitik Negua etortzen denean, azkarki bere mantua dentsu bihurtzen da . Daukan azpi-ilea eta katu persiarrarena baina dentsoagoa da. Hau dela kausa ez zaio nahasten edo korapilatzen eta horrela bere eskuilaketa errazagoa da.

Aukeratzaile batzuen ustez zuri-koloreko duen angorazko katu bakarra da zeinek jaioterri-arraza irudikatzen baitu. Lehiaketetan katurik preziatuena dena zuri-kolorekoa da, nahiz et ale zuriak gorrak izan. Baritate honetaz gain, ale beltzak, tigreen larrua bezala duten katuak, jaspeztaturik, urdinak, urdin-jaspeztaturik, bestean beste.

Kasu guztietan katuaren buztanaren tontorra zorrotza da. Sarritan animalia mugitzen denean, buztana bere bizkarraldean tolestaten da bere burua ia-ia ikutu arte, hau arrazaren ezaugarria da.

Angorazko katuaren elikadurak ez dauzka arazorik. Haragia, eta gibela asko gustatzen zaizkio, baina arroza, barazkiak eta arrainak ere eman behar dizkiogu.

Bere larrua egunero eskuilatu eta orraztu behar da. Dene den hirietako apartamentuetan bizi diren katuek larruaren azalaren aldea zikinagoa dutenez, periodikoki garbiketak behar dituzte eta gainera xanpu lehorrarekin egin behar da ura gorrotatzen dute eta.



### Jatorri nahasgarri bat

Katukumeak oso goiztiarrak dira. Beren begiak irekitzen dituzte persiarrak baino lehen.

Jaiolekuan daudenean borrokak egitera jolasten dute. Dena den, mantuak, arrazaren benetako ezaugarriak lortzeko, bi urte behar ditu.

Nahiz eta "gatofilo" askok angorazko katua Palaseko Katuarengandik (felis manul) datorrela pentsatu ( felido basatia, hiru kiloko pisua, gris-laranja kolorekoa, Ertarasian eta estepetan bizi dena), Zoologo gehienek hipotesi hori ez dela egia pentsatzen dute, izan ere, haien artean desberdintasun garrantsitzuak daude eta teoria hau baliorik gabe uzten dute.Litekeena den azalpena, Angorazko katuak Asia Txikian zeuden katu arruntengandik etorri zirela, da. Izan daiteke zehaztugabeko garai batean genetika-mutazio bat, ile luzeari zegokion, agertu zela. Katu hauek ez zeuzkaten aukerarik bere taldetik at gurutzatzen eta azkenean benetako ile luzedun arraza sortu zen. Dena den Asian, katuen mantuak izugarrizko hazkundea dutela datu egiaztatua da.

Dirudienez, Pietro della Valle-k, 1614. Urtean, Anatoliatik bidaiatu ondoren, Europan angorazko katua sartu zuen. Hamarkadetan zehar, ilaje luzea zuten katuei angorazkoa deitzen zieten. Izan ere, lehenengo etxeko ile luzedun katuak Ankaran (Turkia) bizi ziren.



### Persiako katuaren aita

XIX. Mendearen bigarren erdian, angorazko arrazak aldaketa batzuk jasatzen zituen Inglaterran egiten zituzten hazkuntza-selektiboagatik. Angorazko katuaren lekuan Persiako katua kokatu zen. Angorazko katuaren mantua luzea eta zetatsua zen, bere gorputza luzea eta burua txikia zen. Aitzitik, Persiako katuaren gorputza motzagoa eta sendoa zen, bere burua zabalagoa zen eta belarriak txikiagoak. 1888.Urtean Persiako katua Londreseko Cristal Palace-n ofizialki aurkeztua izan zen.

Hurrengo urteetan, persiarrak aukeraturik izan ziren, eta 1965. Urtean karaktere ofiziala lortu zuten. Denbora horretan oso herrikoiak izan ziren, aitzitik, angorazko katuek garrantzia galtzeari hasi zioten, ia-ia desagertu arte.

Dena den, orain dela hogei urte, EEBB-etan

# ANGORAZKO KATUA

arraza berriro agertu zen, 1963-1966. Urte arte, Ankarako Zootik Ipar Amerikako hazleek ale batzuk inportatu zituzten eta.
Hazkuntza-selektiboak bere fruituak eman zituen eta 1977. Urtean EEBB-etan Turkiako angorazko katuari onarpena eman zioten (Turkish angora). Erresuma Batuan ere, hazle batzuek angorazko katua gozarazteko lan egiten dute, nahiz eta hango aleak eta amerrikarrak desberdinak izan kolorekoari dagokionez.





**Turkiako Van-a, uretako angorazko katua**.

Angorazko katuaren barietate bat dago, benetako kastatik datorrena: Turkiako Van-a (turkish angora). Van Lakuko Turkiako eskualdean garatu zen. Inglaterran, 1969. Urtean onarpena izan zen baina Ipar Amerikan, ordea, ez da onarturik izan. Bere bizilekuan dagoen hotz glaziarretan bizitzen ohituta, Neguan bere gorputza ilaje leunez, zetatsuz eta dentsoz estaltzen du,



baina azpi-ile iletsu gutxirekin. Dena den eguraldi ona ailegatzen denean bere mantua galtzen du eta ia-ia bilusi geratu arte.
Bere arbasoak lakuaren ondoan jaio eta hazi zirenez ura gustatzen zaio eta bizkortasunez igeri egiten daki, angorazko katua ez bezala. Orduan bere jabeak bainu epel batean sartzen duenean primeran dagoela esan dezakegu. Denboraren poderioz etxekoa izaten ohituta dagoenez, zaintzen duen

## ANGORAZKO KATUA

familiaz maitemintzen da, nahiz eta bere konfidantza osoa pertsona bakarrarengan utzi. Angorazko katua bezala, Turkiako Van-a adeitsua eta maitasunezkoa da eta izugarrizko adimena du. Bere gorputza sendoa eta luzea da, bizkarra gihartsuarekin. Bere burua kuneiformea da, belarrak handiak, iletsuak eta arrosak bere barrualdian dira. Bere sudurra luzanga da eta pigmenturik gabe tontorrean. Begiak politak dira oso eta beren kolorea horianbarra da. Bere tonua bitxia da, izan ere, hondoan zuria da eta buruaren gainean eta belarrien ondoan orban gastainagorri-kolorekoak daude. Bere buztana nabaria da zeharo gorrizka delako eraztun ilunagoekin. Katu hau, sarritan eskuilatu eta orraztu behar dugu. Etxeko izaera duenez etxe lasai batean primeran egongo da, terraza landareekin badago, hobe.



Oso delikatua eta gaixobera denez kontuz erabili behar da.

Arraza hau ez da oso ugalkorra, normalean emeek kumaldi banatan lau kume eduki ohi dituzte. Arraza honen estandarran buru biribila, gorputzaren orbanak edo buztanareanak akatsatzat hartzen dira, halaber muskulaturarik eza.



# BIRMANIAKO KATUA

Katu birmaniarra edo Birmaniako katu sakratua, izaera lasaia da, ez da bezain urdurik siamdarra bezala, nahiz eta ahaideturik egon. Gure katua oso trebea eta alaia, bere jaberekiko fideltasuna handiko katua da, jolasean soziablea da oso. Bere marraka oso gozoa da eta bere izaerak pertsona lasaiei maitemindu eragin ohi die. Apartamentu batean bizi daiteke.Bere mantoaren ilajea luzea, zetatsua eta ugaria da, lepoan eta buztanan batez ere, muturrean motzagoa da eta masailetan dentsoagoa. Bere ehundura inoiz ez da tente edo matea agertu. Bere kolorea zuria edo beixa da, baina aurpegiaren, belarrien, hanken eta buztanaren kolorea grisatik txokolate-kolorekora arte doa (barietateen arabera).Bere gorputzak erdipurdiko tamaina du, sendoa eta luzea da.

Hankak sendoak dira, sudurra motza, eta burua biribila bibote ugariekin. Katu honek Himalaiako katuaren antza du, dena den Birmaniako barietate guztiek amankomunean trazu bat dute (hau da desberdintzen zaiona): Bere atzaparren kolore zuri orbangabea. Seguraski hau dela kausa gene atzerakorra zuriz punteaketa. Bere mantoa ez da hain iletsua eta Turkiako angorazko katuaren antza du edo Turkish Van-aren antza du.Birmaniako katuaren begiak nahiko lapranak dira, izugarrizko urdinkoloreko bizia dute, Himalaiko katuen begiak baino zakonagoak dira.

### Barietateak, zainketak eta elikadura

Arraza honengan dauden barietateen desberdintasunak aurpegiaren, belarrien, buztanaren eta hanken koloreetan dautza. Badaude lau arraza. “Seal Point” arrazan atal hauek marroi ilunak dira. “Blue Point” arrazan gris-urdinak dira. « Lilac Point » arrazan gris perla dira eta « Chocolate Point » arrazan txokolate-kolorekoak dira. Azken urteotan hazleek ile motzadun Birmaniako katuak aukeratu dituzte Snowshoe deiturik, edo Elurreko zapatak deiturik, baita gorrizka maskara edo tigrearen larrua dituzten katuak ere aukeratu dituzte. Dena den, Inglaterran bakarrik maskararen kolorea urdina edo foka-kolorea dutenak onarturik daude, EEBB-etan, ordea, txokolate-kolorekoak eta lilak ere onartuta daude.

Emeen ekintza sexuala oso bizia eta ohizkoa da.





# BIRMANIAKO KATUA

Katukumeak oso goiztiarrak dira eta sarritan zazpi hilabetekin estaltzeko gai dira. Kumaldi banatan 3-tik 5-era bitarteko kumeak daude, jaiotzean ia-ia zeharo zuriak dira, denboraren poderioz, gorputzaren bazterrean kolorea agertzen hasi da: , Belarrien edo buztanaren tontorrean, kedarra bezala.
Bere begiak, lehengo aldiz, irekitzen dituztenean, egun batzuk pasa eta gero, izugarrizko urdin- zafiro-kolorekoa dute, eta pizkanaka-pizkanaka zakonago bihurtzen doa.
Elikadurari dagokionez, esan dezakegu, edozein mota haragi, primeran onartzen duela: behi-haragia, zaldi-haragia txerri-haragia…baita erraiak ere. Atal koipekiak asko gustatzen zaizkio, urdazpikoarenak batez ere. Arrainak ematen badizkiogu arantzak kendu behar ditugu. Nahiz eta barazkiak edo arroza ez nahi, haragiarekin nahastu behar ditugu.
Eguneroko higadurarekin 200 gr janari hartu behar ditu, haietariko 130 gr haragi eta gainerakoa barazkiak eta gazta izango dira. Beste katu bezala, birmaniarrari substantzia pozoitsua ezabatzea asko kostatzen zaio, horregatik janaria potez bada ez diogu eman behar.
Egunero felido honi orraztu eta eskuilatu behar diogu.

### Jatorri misteriotsua

Birmaniako katua misteriotsua da, Nahiz eta 65 urte pasa eta gero eta Frantzian bere pedigri-a onartuta izan (1925) ez daki bere benetako jatorria. Batzuek, Asiako hego-ekialdetik Europara arte ailegatu zela, esaten dute eta Tenplu Budistetan zeuden katu sakratutzat-engandik zetozela. Hango apaizek, fededunak hil ondoren, berriro lurrera katuaren itxuraz etortzen zirela, pentsatzen zuten. Beste batzuek, errudunak Frantziako hazleak zirela, esaten dute. Izan ere, katu siamdarrak ile luzedun katu zuri-beltzekin gurutzatu zituzten. Dena den, argi dagoena da, aparteko arraza dela, eta bere familiaren odola siamdarren odolarekin eta siamdar zuriekin nahaztuta izan zela. Gaur egungo Birmaniako katuaren manto luzea eta zetatsua, siamdar zuriarengandik dator.
Frantzian, Bigarren Mundial Gerra arte, arraza honek izugarrizko arrakasta eduki zuen, gero, bere populazioa dexema egiten hasi zen. Denbora asko pasatu behar izan zuen arraza ondo berreskuratu arte. Birmaniako katuak, Inglaterrara lehenengo aldiz, 60ko hamarkadan eraman eragin zituzten. 1966. Urtean txapelketetan lehiatzeko onarturik izan ziren.





# ILE MOTZA DUEN AMERIKAKO KATUA

Ile motza duen katua, etxekoa, trebeagoa eta adiskidea da, umeekin batez ere. Bere familiako beste kideek begirunez tratatzen badiote eta zainketak ematen badizkiote, gure katua haietaz maiteminduko da. Igokari ona eta jauzilaria da, izugarrizko sen ehiztaria duenez, nahiz eta gosea asetu, edozein arratoi edo karraskari harrapatzera joan ohi da. Hau dela kausa oso baliagarria dela esan ohi da. Amateur batzuek, arraza honi eta ile motza duen Europako katuari ez zieten garrantzirik ematen, izan ere, arraza hauek ez zirela hain gorenak pentstzen zuten. Argi dagoena da ez dukatela pedigririk, ez da manto leunik ere, ez da exotiko ekialdeko arrazen sorginkeriarik ere ( begiradan batez ere). Bere gorputza sendoak esaten digu bere jatorria apala dela, izan ere, arraza hau pedigririk ez zeukaten Ipar Amerikako arrazengandik etorri zen.

Dena den, ile motza duten alerik onenak ez dute ezer ikusirik katu kalezaleekin (nahiz eta senidatasun urruna eduki). Amerikako kaskamotzak badauzkate abantaila gehiago: dotoretasun paregabea eta nerbio-altzairuz dituzte. Bere hazkuntza eta zainketak oso errazak dira eta elikatzeko ez dauka arazorik. Bakarrik ez badezake ehiza egin erraiak eman behar dizkiogu. Etxebizitzak ez dio ematen arazorik, ez direlako exotiko arrazak bezain urdurik. Gainera bere ilea motza denez bere jabeei ez die ematen arazorik, ez ile luzea duten katuak bezala. Bakarrik etxetik at joaten denean ondo eskuilatu behar diogu. Txikitatik urez eta xaboiz bainatu behar dugu, bestela ez dugu onartuko eta haserretuko da.



### Motak

Katu honek gorputza gihartsua du. Bere bularra eta bizkarra ondo garaturik daude, eta bere oin sendoekin edozein eremutatik eskala dezake. Bere begiak biribilak, nahiko urraturik eta disdiratsuak dira, beti edozein mugimenduri erne egonez. Bere buztana bere oinaldean zabala eta astuna da. Ehiztari paregabea da, eta bere barailak hain sendoak dira ezen edozein harrapakin ora baitezake.



Bere ilaje gogorrak hotzetik eta hezetasunetik babesten ditu, baita borroketan egindako zaurietatik, eta landaredi arantzatsuetatik ere. Neguan zehar bere ilajea dentsoago bihurtzen da bina ez iletsua. Bere koloreari dagokionez esan dezakegu

# ILE MOTZA DUEN AMERIKAKO KATUA



mota asko dagoela: beltz-antrazita-kolorekoa duten katuak, urre-koloreko begiekin, zuri disdiratsuak begi urdinekin, gorrixkak urr-koloreko begiekin, txintxilak, itzalak edo "shell"-a (ile punteaketarekin azpi-arrazak dira). Beste aldetik badaude ere mantoaren gainean marrazki ezaugarriak dituzten barietateak: "Tabby"-ak.

Arraza honen jatorriak ez dira antzinakoak. XVII. Mendean Europako emigratzaile batzuek Amerikara eraman zituzten etxeko katuek, arratoiak ehizatuz, bi mende eta erdi bizirik iraundu zuten. Handik aurrera, erakusketetan eta txapelketetan agertuko dira.

Lekuetan, non bizi baitziren animalia hauek, eguraldia hain txarra zen (herrialdeko Iparraldean batez ere), ezen oso iraunkor bihurtu baitziren. Hau dela kausa gaur egun katu hau oso gogorra da. Nahiz eta eguraldirik txarrena izan, bere jabea uzten bazaio etxetik at irtetzeko gai da.

Aukeratzaile amateurren talde batek, ale batzuen odola nahastuz, arraza berri bat finkatzea lortu zuen. Azkenean, katuen erakusketetan, arraza honek ongi etorria lortu zuen, gainera izugarrizko arrakasta edukiz. Ile motza duen lehenengo katua 1904. Urtean erregistratua izan zen, bere izena "Buster Brown" izan zen.

Jatorriz, arraza honi "Kaskamotza" esaten zioten, baina goiz "Etxeko kaskamotza" esango zioten. Kolorazio asko sortu ziren. 50 eko Hamarkadaren hamaieran berrogeita hamar kolorazio baino gehiago erregistratua geratu ziren. Gero eta hazle gehiago arraza honengandik interesatzen hasi ziren eta berriro bataiatu zuten:"Amerikako kaskamotza". Nahiz eta bere aleak hasieran onarturik ez izan, handik aurrera, erakusketetan beren aurkezpena eztabaidezina izango zen eta askotan lehenengo sariak lortuko zituztela.





# HIMALAIAKO KATUA

Himalaiako katua, katu siamdarren eta persiarren arteko gurutzatzeetatik jaio da. Bera felido maitekorra, baketsua eta oso jostalaria da. Ale bakoitzak bere izaera dauka, baina bere portaerak bere arbasoen nolakotasunak nahastu ohi ditu. Himalaiako katu gutxi endredatzaileak eta apetatsuak dira, siamdarra bezala. Dena den, gehienek, persiarra izan ezik, arratoiak harrapatzeko, eta denbora gutxitan edozein gauza ikasteko izugarrizko trebetasunak dituzte.

Katu hau, goiz, familia osoaz maitemindu ohi da, janaria ematen dion pertsonarekin eta ilea orrazten dionarekin batez ere. Bere izaera goxoa eta afektu lortzeko gogoak, ezin hobeak dira pertsona bakar batekin bizitzeko. Bere marraka goxoa eta leuna da. Apartamentu txiki batean erosoa egon daiteke, baina onena da gela bat, edo terraza edo lorategi bat ematea, primeran mugitzeko.

Emeak, zortzi hilabeterekin, araldian egon ohi dira (katu persiarrak baino pixka lehenago. Dena den, aukeratzaileek ez dituzten gurutzatu nahi urte bat bete arte. Badaude ere Himalaiako katuen kasuak non bi urte arte ez baitziren araldian egon. Arrei heldutasun sexuala 18 hilabetera arte ez zaie ailegatu. Kumaldiak txikiak dira, normalean bi edo hiru katukume dituzte (persiarrei gauza bera gertatzen zaie, baina ez siamdarrei). Jaiotzean ilearen ordez, bilo bat dute, bilo honen kolorea beixa uniformea da edo zeharo zuria. Bere gorputzaren kolorea, gutxi aste barru agertzen hasi da, belarrien ertzean lerro fin bat bezala hasieran agertzen da, gero





# HIMALAIAKO KATUA

suduraren larruan eta erpeetako kuxinetan, eta buztanan.

Nahiz eta ale batzuen buruak beste batzuenak baino lumadunagoak izan, ilu luzea duen katurik ez dago, izan ere, umatzen den neurria ilea hazten da. Emeek urte bat dutenean beren ilajea 12 cm-ko luzera izatera ailega daiteke. Arren ilajea 15 edo 16 hilabetera halako luzera izatera ailegatu daiteke.

Kumeak akatzarik gabe lortzea ez da batere erraza: Haien artean dauzkagu: Burua luzea eta triangeluarra, (siamdarra bezalako), hezurdura apurkorra, begi betokerrak edo ez urdinak, ile motza edo ustekabeko orbanak.

Egunero orraztu behar dugu. Haragia, arraina, arroza eta barazkiak jateko eman behar dizkiogu. Txikitan esne asko behar izango du eta egunero lau bazkari, baina ale helduek bakarrik bi bazkari behar dituzte.



### Izaerak eta barietateak

Nahiz eta ile luzea duen arraza bat izan (siamdarren eskemaz) momentu batean nor den dakigu, izan ere, bere burua zabala eta biribila da (persiarra bezala), masail potoloak, sudurra motza eta sudurtaloa da, belarriak txikiak eta urrunak dira, ilajea zetatsua eta leuna da. Bere biboteak luzeak dira eta lepoa motza. Buztanak ez dauka ile asko. Gorputza sendoa da eta hankak mardulak dira. Onena izango litzateke bere begien kolorea urdin-zafiroa izango liratekeela baina hau lortzea oso zaila da.

Bere mantoari dagokionez esan dezakegu siamdarren mantu ezagun guztiak baimendurik daudela: Blue point-etik, gorputza zuriz eta aurpegiaren maskara, hankak eta buztana urdina, Txokolate point-era arte, gorputza marfil-kolorekoa kakao-koloretako puntuekin, edo Red point-a, zuri-zurbila gorriak puntuekin.

**E**rakusketetako epaileek bazter dentsoak eta gorputza zurbil bat



# HIMALAIAKO KATUA

nahiago dituzte.Baina bere ilajea hain luzea denez ezin baitu goratzen bazterretako kolorearen dentsitatea (hau siamdarrengan oso ondo ikus daiteke). Hau gertatzen da siamdarren efektua termomenpekoa da eta. Himalaiako maskararen ile motza luzeagoa da eta aise bero gehiago gordetzen du (siamdarrarekin konparatuz). Nahiz eta horrek bazterreko kolorea ahuldu, gorputzaren zurbiltasun erraztu ohi du.

### Arraza berri baten jaiotzea

Esperimentu batzuen bidez, genetika-arazoak kentzeko arraza hau sortu zen.



Baina gero aproposa egin zituzten: manto siamdarra duen katu bat sortu nahi zuten eta gainera persarren itxuraz eta ilajez. Nahiz eta Inglaterrako eta Ipar Amerikako aukeratzaileek helburu honekin beti ados egon, gauza bera ez zituen gertatu ez izenarekin ez da katu berriaren estatusarekin ere

EEBB-etan himalaiako katuari esaten diote eta ile luzea duen arraza bat da. Dena den, Inglaterran eta Europako hiriburu gehienetanpersarren azpi-arrazatzat hartzen dute eta kolorearen maskara duen ile-luzedunari esaten diote. Lehenengo gurutzatze nahitakoak 1924 eginak izan ziren (Suedako genetistak egin zituen). 1930. Urtean Harvardeko Medikuntza Eskolan ikertzaile batzuek aukeraketa handiagoa egin behar zuela, izaera batzuen jaraunspena eustatzeko, pentsatu zuten.

Horrela persiar , siamdar eta birmaniarren artean gurutzatzeak egin zituzten, kume ile-luzedun batzuk lortu zituzten, azkenean 1935. Urtean EEBB-etan lehenengo kolorearen maskara ile luzeduna jaio zen. 1935. Urtean ere Inglaterran aukeratzaileen Kluba halako gurutzatzeak egiteko



sortu zen. Aukeratzaile hauen lehenengo helburua, benetako persiar bat, siamdarraren kolorez lortzea zen. 1950. Urte arte aukeraketa luzatu egin zen (benetako arraza bat lortu arte), une horretan EEBB-etan Pedigri-a zuten Himalaiako katuen hazkuntza hasi zen. 1957. Urtean ACEFA-k (American Cat Fanciers Federation) Himalaiako katuari arraza titulo eman zion.

# BALI-KO KATUA

Ile luzea duen katuen arrazarik, dotorenetariko eta deigarrienetariko bat da. Ile luzearekin jaio ziren katu siamdarren mutazioagatik sortuta. Katu honen izaera soziablea eta trebea da. Siamdarra bezala, akrobatikoa ez ezik, jauzilaria ere da. Korrika egitea, gortinetara igotzea eta beren jabeen sorbaldetara igotzea atsegin zaizkio.
Generalki, familia osoaz maitemindu ohi da, baina pertsona bakar batekin batez ere.
Nahiz eta maitekorra izan, ale batzuek batera, siamdar askori berreizgarri zaion hoztasunaren argi-koroa, kontserbatzen dute.
Nahiz eta apartamentu batean egon ahal, leku irekietan, terrazak edo lorategiak bezala, egotea atsegin zaizkio.Berak duen abaintalak siamdarrak ez dauzka: bere ilajeak ez ditu egiten korapiloak.

### Gibela eta yorkeko urdaiazpikoa

Bali-ko katuak ez du behar elikadura berezia, janari prestatua edo etxeko janaria gustatzen zaizkio, baina gehien gustatzen zaizkiona gibela eta yorkeko urdaiazpikoa da.
Beste arrazarekin konparatuz, bere heldutasun sexuala beranduago etortzen zaiola esan dezakegu. Emeak, ama liluragarriak dira, haiek hiru edo lau kumez erditzen dira. Kontu handiz beren kumeak zaintzen dituzten eta haiekin jolasean denbora ematen dute.
Katukumea erostekotan gauza batzuk aintzakotzat hartu behar ditugu: katuen begiak, belarriak eta sudurra garbiak eduki behar dituela eta mihia arrosa. Bere gorputzan ezin da egon arkakusorik ez da arkakusoen gorozkirik ere. Bere izaera urduria edo ahula badago hobe da ez erostea. Lehenengo inpresio hau lortu ondoren, gero albaitariarengana aholkuren bila joatea komenigarria izango da. Etxerako helduera talka izan ohi denez, lehengo egunetan zarata handiak, asko eskukatzea…. saihestu behar ditugu, gainera otzara erosoa eman behar diogu.

### Bali-ko dantzariak

Amerikako katu honek ia-ia ez du historiarik. Bere jatorria mutazio natural baten emaitza izan zen. Hau, 1966. Urtean, New York-en gertatu zen. Dirudienez, Amerikako katu kaskamotzen kumaldi batean, bi kume mutanteak, gorri eta zuri koloretakoak jaio ziren, beren ilajeak gogorrak eta kizkurrak ziren. Adituak, harriturik zeuden, izan ere katuen mantoa liluragarria zen katu batentzat. Orduan gurutzatze batzuk egin ondoren, ondorengoentzat ile kizkuraren eta gogorraren gene finkatzea lortu zuten. Horrela arraza berri bat egin zuten. EEBB-etatik at arraroa izaten jarraitzen du. Dena den azken urteotan, Kanadara, Frantziara, Alemaniara eta Inglaterrara ale batzuk esportatu dira.
Herrialde hauetan oso ondo hartuta izan da, bere edertasuna ezezik, bere adimena ere. Katu hau apartamentu batean bizi daiteke, oso moldatu da eta. Baina burujabea eta eraginkorra izateagatik, patioetatik eta lorategietatik, askatasunez ibili behar da.
Etxeratzean gomenigarria da orraztea eta eskuilatzea, baina neurritasunez, izan ere bere ilea kizkurra izan behar da eta ez izurtua. Ileak erdipurdiko luzera du, dentsoa, biguna eta irmoa da, buruan, bizkarrean eta buztanaren oinaldian gogorragoa da, masailalboetan eta sabelean leun samarra da.





**"Adam"- en denboretan**

Erdipurdiko tamaina eta gorputza gihartsua dituen animalia honek, hankak sendoak dira, erpe trinko eta izurtuekin. Buztanak ardatz itxura ematen du, punta biribil bat eratu arte.
Bere buruan, biribila eta masailalbo garaiekin, begi argitsuak, ia-ia birbilak, ondo urrunak, eta beti ondo ematen dute mantoarekin, bereizten dira. Bere sudurrak, kurbatu samarra denez, bihurrikeria azpimarratzen du. Bere belarriek zutik eta biribilak, espresio leuna eta biguna katuari ematen diote.
Lehenengo ile gogorra duen Amerikako Katuari, edo American Wirehair-ri "Adam" deitu zioten. Zuri eta gorria izan zen. Handik aurrera arraza honen ondorengo asko izan ziren. Behar bada eme hauek duten ama-sena primeran zetorkien. Emeak ez dira arrak bezain handiak, baina aparteko amak dira eta beren betebeharrak beren kideekin banatzen dituzte. Askotan katu hauek kaskamotzekin gurutzatu zituzten, eta ondorioz barietate asko lortu zituzten. Barietaterik arruntena da, ilaje marroi-koloreko dituena orban gorriekin eta beltzekin. Ugalketa hauetan ateratzen diren kumaldiaren erdiak ile gogorra du. Ile gogorra duen Amerikako katuen kasuan, aita eta ama bere kumeak zaintzeko txandakaz ibiltzen dira. Nahiz eta kume txikiak izan, nahiz etxeko janaria nahiz katuentzako janari berezia onartzen dituzte. Katu honek ez ditu eskakisun handirik baina paregabeko ezaugarriak dira bere mantoagatik, izan ere, tonalitate eta diseinu guztiak aurkes ditzake. Onartzen ez duen tonalitate bakarra Patched Tabby-a da.

# ILE MOTZA DUEN KATU EXOTIKOA

Katu hau edo Exotic shorthair-a maitagarria eta adimentsua da oso. Inoiz es du portaerako jarrabiderik jarraitu. Halaber, jakingurazkoa, jostalaria, kuxkuxeroa eta aldakorra da –zer esanik ez. Tarteka-marteka kuxin baten gainean edo edozein bazterretan, gustora, lo egiten du eta bat-batean ideaz aldatzen du eta beste lekutara lo egitera joaten da.
Elikadurarekin gauza bera gertatzen da: Badago aste batzu konposatuak haragien bitartez jaten, bat-batean nekatu ohi da eta janari gozegarriagoa jan nahi du. Ematen du gutizia daramakiola. Zorionez familia osorako afektua iraunkorra da eta inoiz ez ditu bertan behera ohitura onak uzten, adibidez kaxoia erabiltzeko ohitura.



Familia osorako gozotasuna erakusten du, hemen adimena ez dago inkimanka gozotasunarekin.Hau dela kausa katu aproposa da apartamentu batean bizitzeko.
Lo egiten duenean edo plantak egiten duenean, zarata txikia edo marruskadura txiki bat nahikoa izango da, amen batean esnarazteko, begiak irekitzeko eta belarriak zutik jartzeko. Bere kuriositateak ez ditu mugarik, ez da edozerekin konformatzen: pilotaz jolasten duenean, zergatik mugitzen den jakin nahi du, zer dagoen kaxoian, edo zer dagoen hozkailuan.



Arraza honetako kide batzuk jeloskorrak dira oso, beste katu etxean sartzen bada ahal duten guztia egingo dute katua etxetik at botatzeko edo ezikusiarena egingo du. Arraza hau ez da oso iraunkorra, generalki 13 edo 14 urte arte bizi dira.
60-ko hamarkadan, Exotic shorthair-a agertu zen eta baita aukeratua izan ere, gure katua, Persiarrak eta ile motza duten Amerikako katuen arteko gurutzatze arduratsuen ondorioa zen.
Arraza berriaren gorputza sendoa eta dotorea da, bere hankak, bereziki, sendoak eta gihartsuak dira. Bere burua eta katu persiarrarena antzekoak dira: trinkoak. Muturra potoloa da eta sudurra motza eta zabala da.
Felido honen begiak biribilak, disdiratsuak, adierazkorrak eta haien artean urrun samarrak dira. Aurpegiari espresio gozoa

# ILE MOTZA DUEN KATU EXOTIKOA

ematen dizkio eta ondo ematen dute mantoarekin. Orduan aleak, zuriak badira beren begirada urdina izan behar da, eta eltzak badira, begirada hori-kobre-kolorekoa izan behar da.
Nahiz eta kaskamotzatzat hartuta izan, bere mantoa dentsoa, azkarra, ia-ia zetatsua da.
Beste kaskamotzen mantua baino handiagoa da eta inoiz ez dago gorputzean nahiko itsatsita. Buztana, dispertsio txikiarekin ez dago kurbaturik, eta oso dentsoa da. Persiarren azpi-arraza berdinak ditu, urre-kolorekoa, Van bi-kolorekoa, eta pekindarraren muturra izan ezik.

### Amak usainagatik

Arraza honen kumaldietan lau katu agertu ohi dira, generalki haien ilajeak beren gurasoenak baino ilunagoak dira. Beste ugaztunekin gertatzen den moduan, kumeak jaiotzean itsuak dira. Egun batzuk pasa eta gero zerbait ikusten hasten dira, baina beren ikusmena ona izango da hiru hilabete pasa ondoren.
Jaio diren katuen begiek ez badituzte ematen mantoarekin, edo beren buztanak oso motzak badira akastuntzat hartzen dituzte eta erakusketetatik at geratzen dira. Ez da ona kaskamotz exotikoei beren amak banatzea oso goiz, gutxienez, segurtasunez jateko gai izan behar dira, eta platoa ahiarekin edo haragi-puskekin miazkakatu behar dituzte. Katu honengan ama-esnearen behartasuna beste haragijalerena baino handiagoa da. Ama-esneak gatz mineral asko ditu eta hau dela kausa, hazkundearen arazoak saihesteko balio ditu, baita hezur apurkorrak ere. Normalean bi hilabete pasa ondoren kumaldiak bana daitezke, baina ez lehenago, gainera kanpotarrek katukumeak ikutzea saihestu behar dugu, izan ere, eme batzuei ez zaie batere gustatzen usain desberdina eta batzuetan kumaldia ikutua izan ondoren amak arbuiatu ohi du.
Titia kendu ondoren, kumeek egunero lau aldiz jan behar dituzte, adibidez: zortzietan, hamabietan, bostetan eta bederatzietan. Bost hilabeterekin bost bazkari izango dira, 8 hilabetetik urte bat arte, bi bazkari izango dira, eta handik aurrera bazkari bakar bat nahikoa izango da. Baina ugaria izan behar da eta iluntzean emango diogu.
Janariaren kopuruari dagokienez, esan daiteke 5 hilabetetik 7 hilabetera, egunero, 70-80 gr haragi eman behar dizkiogula, baita arroza, esnea, barazki egosita eta zatituta,oloa (Krispetak) ere. Gehien gustatzen zaion arraina da, baina komenigarria da, astero behin bakarrik ematea (hazkundearen garaian ). Eta beti arantzarik gabe.
Heldua denean, egunero,200-220 gr janari solido jan behar ditu, haietariko 130-140 gr haragi-arrain-errai izango dira. Gainerakoa, barazkiak eta gazta izan daitezke. Barazki egoziek digestioa erraztu ohi dute, eta haragiarekin nahazturik egon behar dira. Aitzitik patatak kaltegarriak izan daitezke. Ale batzuei esparragoak asko gustatzen zaizkie.

### Zainketak eta higienea

Katu arraza honen mantua oso dentsoa da, 20 ile milimetro karratuko izatera izatera irits daiteke, bistan dago bere gorputzaren osagairik liluragarriena bere ilajea dela. Baina ondo mantentzeko egunero kontu handiz eta maitasunez eskuilatu behar diogu. Bere ilajea gorputza-orekan oso inportantea dela aintzakotzat hartu behar dugu, izan ere oztopo eraginkor bat eratzen du nahiz ur handiko galtzapena saihesteko nahiz germen-inbasioa edo eguzkiaren islada bizien efektuak saihesteko.
Neguan zehar arraza honen mantua dentsoago bihurtzen da, Udan baino. Honi esker bere gorputzaten tenperatura erregula dezake. Bere ilajearen disdira gantzari esker gertatzen da. Bere gorputza osoan zehar dauden guruin berezi batzuen bidez, gantza banandu ohi da. Gantzak, ilearen gainetik pelikula bat osatzen duela, kolesterola dauka, zeinek D bitamina duen. Gainera, katuak bere mantua txukuntzean bitamina hau jaten du, horrela bere organismoaren defentsak gehitzen dira.



Gure katuaren larrua oso lehorra badago, bere mantoak kolpe elektikoa botatzen du, gure eskua katuaren bizkarraren gainetik ilez kontra laztantzean sumatuko dugu.
Eskuilatzean, gure katuaren ondoan gaudenez, belarrien barrualdeak kotoizko bastoi txiki baten bidez garbi diezazkiogu, bastoi hauek ur epelan sartu behar dugu bustitzeko. Begi gaixorik eta makartsuak baditu adibidez hautsagatik, kotoizko puzka baten bidez, ur epelan sartuta, eta masaje leuna eginez, garbituko dizkiogu.
Dena den ezohizko narridura nabaritzen badugu: bai begietan bai belarrien barrualdean, albaitariarengana joatea gomenigarria izango litzateke.

# SOMALIAKO KATUA

Somaliako katua adimentsua,eta bizia da oso. Bere geneetan eramaten duen ehiztari-senak etxea uzteari, saguen bila joateko, eramaten dio. Gehien gustatzen zaizkion gauzetariko bat arratoiak edo saguak ehiza egitea da, zer esanik ez. (beste arraza bezala).

Somaliarrak, arratoien agerpena nabaritzen dituenean, belarriak zutik jartzen ditu, bere denbora ematen du, nahiz eta ordu batzuk izan, berdin zaio. Bere buztana, isilka-misilka mugitzen du, eta ziztu batean beren atzetik joaten da. Ehiztari ona dela pentsatzen dugun ale batek, hogei urterekin 22000 sagu hil zitzakeen. Kontua da, somaliar gazte batek urte batean 1000 sagu hil ditzakeela.

Katu honen anatomian trazu bitzi batzuk daude ezen beste katurengandik (senitartekoak) desberdintzen dituen. Haietariko bat bere bizkarra okertu samarra dago, katua jauzi egiteko prest dagoela, ematen du. Bere belarri zabalak beti erne egon, gainera belarri banatan ile-xerlo bat aurkezten dituzte, katamotza bezala, honi gaineratu behar diogu eztarrian daukan ile-lepoko dentzoa, zeinek ale guztietan modu berdinean ez baitziren agertzen, bakarrik preziatuengan.Bukatzeko esan behar da, bere begiak, berdeak edo urrekolorekoak direla, amanda-itxurako samarra dute, belarrien ingurumariak ilu-





# SOMALIAKO KATUA

nak dira, ematen du Aintzinako Egiptoan, bere jatorizko lekua, makilaturik izan zirela. Bere erakargarritasunenetariko bat da: begirada, adierazkorra, sakona eta liluragarria denez.



**Ausartak edo ziztrinak**

Absiniako katu batzuk, mutazioa pairatzeagatik, ile luzez jaio ziren. Mendeko hasieran hazleek, katu hauek eta katu persiarrak, gurutzatzeak egiteko, hartu zituzten, eta ondorioz Somaliako arraza sortu egin zen. Arraza berriak larru leuna, eta manto dentsoa ditu, generalki bere kolorea, laranja beltzez zikinduta, edo erbi-kolorekoa da. 1960. Urteko amaieran ofizialki onartuta izan zen.

Bere gorputza luzanga, eta sendoa da, baina ez da Absiniako katuarena bezain handia. Bere gorputzadarrak lirainak eta sendoak dira, eta bere buztana luzea da ile dentsoz estalita. Bere buru borobila, mutur luze batean zorrotzen da, itxura honek portaera aristokratikoa eta dotorea ematen dio

Somaliarrak, Absiniako katuaren izaera gordetzen du, oso jostalaria baina batera burujabea eta maitekorra da. Dena den, esan behar dugu katuaren psikologia zeharo ezezaguna dela momentuz. Izan ere, nahiz eta katuen ezaugarri tipikoak eduki: burujabetasuna, jakingura, ehiza egiteko interesa, nagia eta jeloskortasuna. Katu guztien psikeetan zer edo zer sailkaezina eta enigmatikoa dago.

Katu banak bere nortasun isilekoa eta ukaezina du. Honek esan nahi du ale batzuk lotsatiak direla baina aitzitik beste batzuk, burujabeak, lasaiak, bihurriak, burugogorrak, ausartegiak, ausartak edo ziztrinak izan daitezke. Arraza bera duten indibiduoak eta kumaldi berberan daudenak, psikologikoki oso desberdinak izan daitezke.Dena den arraza bakoitzatik erretratu edo deskripzio nahiko fidegarria



atera daiteke, baina estandar estetikoa zehatza eta aldaezina den bitartean , estandar intelektuala eta nerbio-estandarra belaunaldiz belaunaldi asko alda daitekeela aintzakotzat hartu behar dugu. Ildo honi jarraituz esan daiteke, katu txikien zerebroaren garapen fisikoa bere bizitzaren lehenego egunetan oso azkar dela,

bost hilaberekin osatzen du. Bere hazkundea normala izateko kontuan hartu behar da zeintzuk diren amak ematen dizkion estimuloak eta zer egingo duen gizakiok horretarako, izan ere, bizitza gogogabeak,eta janarik ezak kalte egin diezaiokete bere etorkisun psikologikoari.
Nahiz eta Somaliako katuak aspektu basatia eduki, somaliarra mantsoa da, dena den ale batzuk, batzuetan oso zuhurrak erakusten dira. Bere jabeari afektua eman baino lehen, jabeak katuarekiko konfidantza eta begirunea daukan ala ez jakin nahi du gure katuak.
Esan daiteke somaliarrari jabearen presentzia, edo maite dituen pertsonen presentzia asko gustatzen zaizkiola.
Berak nahi badu, gogo onez ferekak onartzen ditu,( bakarrik berak nahi duenean) eta bere urrumaren bidez esaten digu. Bere jabea, egun batzuk etxetik at egon baditu, hoztasunez hartzeko gai da, kexa bezala edo bere jabearen jokaerak haserratu duelako eta ez du jolasteko gogorik. Baina haserraldi pasa ondoren bere laguntasuna berriro bilatzeko prest dago.
Somaliarra etxean gustora bizi da, neguan batez ere, izan ere, katu hau oso hozbera da, eta klima epela edo gela epela bizitzeko behar du.
Dena den, Udaberria eta eguraldi ona heltzean, askatasuna behar du eta terrazatik edo lorategietatik ibili behar, honek esan nahi du arraza hau ez dela apropo-sa apartamentu txiki batean bizitzeko .Baserrietan bizi diren somaliarrak saguen bila edo sugandilen bila joaten direnean sugegorri baek zizta diezaoke, nahiz eta ekintza noizbehingoa eta dramatikoa izan, egiazko ekintza izan daiteke. Animaliak, asaldurak, okadak eta paralisia jasatzen ditu. Hau gertatzen bada, derrigorrez albaitariaren jakinduria behar izango dugu katuaren heriotza saihesteko.

## Zainketa somaliarrak

Txikitatik eskuilatzeko ohitura hartu behar du, ile luzea du eta. Ekintza hau sarriagoa izan behar da muda-garaian, gauez batez ere, une honetan gure maskota nekatuta dagoenez onartuko du.
Ekintza honek ilajearen edertasuna azpimarratzea ez ezik, katuak bere ilea ez irenstea ere edo milaka ile kuxinetan edo tapizetan ez bukatzea lortuko ditu.
Eskuila onenak natur-zuntzezkoak dira, izan ere, zuntz sinteikoek elektrizitatea eragin dezakete baita ilearen haustura ere.
Ildo honekin jarraituz, larruak zainketa batzuk, eta bizkarroien periodiko kontrola : arkakusoak eta zorriak, behar ditu. Gainera gaixotasunen seinaleak aintzakotzat hartu behar ditugu adibidez : ezkabia, somaliarra kaleko katuekin egon bada batez ere.
Katuen arkakusoak eta gizonarenak edo txakurrarenak ez dute ezer ikusirik baina ez-garaian nahiz bata nahiz bestea kutsatuko dituzte. Batzuetan beren ziztadak infezioak eragiten dituzte, eta asko badira, katuak anemia har lezake. Eskuilatzen diogunean zainketa higienikoak emateko aprobetxatu behar ditugu : bere begiak edo belarriak garbitzeko, kotoizko zati baten bidez, ur epelan sartuta erabiliko dugu.



# ILE MOTZA DUEN BRITAINIA HANDIKO KATUA

British shorthair-ak, sendotasunari, trinkotasunari eta bere gorputzaren poteretsuari ezker, edozein egoera lasaitasunez, independentziaz eta duintasunez onartzen du.
Nahiz eta patxada britaniarra eduki, honek ez du inportantziareik benetako katua bezala konportatzeko : Bere jabeen mesedeak lortu nahi dituenean maitekorra, adeitsua eta jostalaria agertzen da. Interesagatik umeak pairatzera ailegatzen da, (ez baditu asko molestatzen).
Katu hau ehiztari eraginkorra eta jostalaria da, denbora asko sofa batean edo kuxin bigunetan ematea gustatzen bazaio ere. Bere gorputza luzea eta ondo orekatua hain arina da ezen erortzen baita, nahiz eta altuera handitik izan, beti lau hanketan lurreratu ohi da.
Txakur asko ez bezala, Katu britaniarra kotxez edo itsasuntsiz bidaiatzen denean inoiz ez da zorabiatzen. Dena den katu gehienei bezala, lekualdaketak ez zaizkio batere gustatzen, eta edozein hausturak bere ohiko bizitzan estresa ematen dio.

### Katamotzezko begiak

Katu britaniarrak ikusmena eta entzumena liluragarriak ditu. Nahiz eta bere ondoan dauden objetuak ez ondo fokatu, bere begi bakoitza 200º ikusmen-angelu arte estaltzeko gai da, eta bi metrotik aurrera bere begiradatik ez zaio ezer ihes egiten.
Katuak gauez ere ikusmen-ahamena mantentzen du.
Daukaten katu guztien bigi-niniak dilatatzeko gaitasunari esker, edozein ilargiaren izpi fina bere begiak 40-50 aldiz anplifika ditzake, izan ere, estaldura barne-begi zelular baten bidez, horizka kolorekoa “Tapiz disdiratsua” delakoa, ispiluaren bezala, funtzionatzen du, argia bere erretinaren gainean isladatzeko.
Egunean, erretina zirrikitu bertikal bihurtu arte gutxitzen da, ia-ia ikustezina da.
Bere entzumena ultrasoinu maila arte, harbera da, katu hau edozein zarata lokalizatzeko gai da, metro batean, 6-7 ren bat cm. akatsera egon daitezke. Hain handia da bere entzumena ezen edozein zarata erakargarria iruditzen batzaio. Hau gertatzen den bakoitzean, nahiz eta bere jabeak deitu bera gorrarena egiten da.





Txakurra ez bezala, kaskamotz britaniarra katu mamagaitza eta zentzakaitza da oso. Bere entzumena, jokuaren edo ehizaren jakingura, jakinmina eta bere probetxurako lortzeko balio ditu, agindu zuzena egiteko izan ezik.
Bere entzumen zehatza helburu baliagarria egiteko balio izango balu, animalia honen jabeak elektroi-lapurrarren kontrakoa edukiko luke eta bere jabeak nahi duenean katuen azazkalak ateratzea lortuko balitu eta kanpotarrekin aurkakoa egongo balego etxe edo lantegi guztietan british shorthair

# ILE MOTZA DUEN BRITAINIA HANDIKO KATUA

bat egongo litzateke. Dena den, Naturak katu hauei izaera burujabea eta eraginkorra eman die.
Zahartzen diren heinean, gortasunzale bihurtzen dira, baina galtzapen hau ikusmena eta entzumena zorroztuz konpentsatzen dute eta halaber, bibrazioarako sentibera bihurtuz.
Bere belarrien kaleko aldean, ilezko langa txiki bat, babesteko dago, dena den hautsak eta ezkoak katuen belarrietan gordetegiak eratzen dituzte, eta azkenean katuak, azkazalen bidez, bere buruari zauriak egiten dizkio, karraskatzeko. Eragospen hauek saihesteko, katuen belarriek bastoi txiki baten bidez, garbitu behar dizkiogu, baina ez dugu oso sakona sartu behar. Normalean ekintza hau ez zaio batere gustatzen, hau dela kausa txikitatik ohitura hartu behar du.
Kaskamotz britaniarraren jatorriak nahiz naturalak nahiz zaharrak dira, eta katu trebea, harroa eta ehiztari ona izatera eramaten dute. Harrison Weir-rek arraza hau lortu zuen, berak, katuen hazkuntza arte izatera eraman zuen. Harrison-ek arraza batean kaleko katuen ezaugarri eta trazu onenak finkatu nahi izan zituen, azkenean joan zen mendean lortu zuen eta Londreseko Crystal Palace-n ospatzen ziren erakusketa guztietan Katurik ezagunena izatea lortu zuen.

**Koloreak guztioni atsegin emateko.**

Dena den, Mendeko hasieran, Erresuma Batua-ra katu persiarrak ailegatzea (beren ilajeak luzeak ez ezik, zetatsuak ere ziren ), katu hauek bere estatusa galdu zituzten eta 30-eko hamarkadan arte ez dute berriro berreskuratzen. II Mundu Gerra- ri esker Europako katuen hazkuntza bertan behera geratu zen baina ilemotz britaniarra beste katu persiarrekin gurutzatu izan zuen, urte asko eman behar izan zuten arrazaren programa finkatzeko. Gaur egun, animalia honek buru sendoa du, begi handiak eta urrunak ditu eta buztana lodia eta zehatza, bere tamainak eta gorputzaren tamainak proportzio orekatua aurkezten dute. Bere ilaje motza eta dentsoa, Britania Handiko eguraldi hotzari eta hezeari adaptatzeko.
Gaur egun 17 kolore mota onartzen dituzte, haien artean urdina da garrantzitsuena, begiak laranja koloretakoak dauzkaten aleak, arraza kartusien antzekoak direla esan behar da. Beltz-zuri barietatearen diren katuak zeharo homogeneoak izan behar dira, beren begiak laranjak izan behar, baina zurien kasuan, beren begiak urdinak edo begi bana kolore bana izan daiteke. Kezkaketen mantua beltza edo urdina izan daiteke, bere azpi-ilea, zilarkolore argia orban zuriak gabe izan daitezke. Gehien preziatzen duten Kolore barietateriko bat beixa da, izan ere, oso zaila da ale beixak, orban zuririk gabe eta begi laranjak lortzea. Beste barietateren artean: orbandua, dortokaren ezkata - beren aleak beltzak dira orban beixa-gorriekin- eta urdin-beixa kolorekoa.





# KATU KARTUSIARRA

Kartusiarra, mantsoa, adimentsua eta fidakorra da oso. Bere izaeraren ontasuna, gozotasuna eta begikotasuna bere hazleari konkistatzen zaizkio, izan ere, zaintzen dituen pertsonekin maitatu ohi ditu. Karraskariak ehizatzen, oso ona da. Bere aparteko giroa, apartamendu handia eta terrazarekin da.

Ez ditu behar zainketa asko. Noizean behin eskuilatu behar dugu, honekin nahikoa da, izan ere bere osasuna ona da.

Arraza famatu honek -egun bakoitza bitxiagoa-, gorputza poteretsua eta sendoa du, sei kilo-ko pisua izatera ailega daiteke. Bere bularra eta bizkarra zabalak dira, eta bere hankak oso gihartsuak, baina honek ez ditu eragozten bere mugimenduak eta felido basatienak antzekoak direla. Arrak emeak baino sendoagoak direla ematen du.

Kartusiarraren burua biribila da, bere muturra triangeluarra eta bere masailalboak nabarmenak dira, espainak ia-ia zeharo beltzak dira. Bere begiak biribilak dira eta kobre-kolorekoa, horiak edo laranjak dira. Buztana, luzea eta sendoa, bizkarraren gainean tolestaturik eraman ohi du. Bere ilea motza, dentsoa, disdiratsua eta belusantzekoa da, hau dela kausa igarabarena ematen du, eta oso atsegina da lastantzea.



Bere koloreari dagokionez, esan daiteke tonu guztiak onartuta daudela, baina lila eta urdin argia, preziatuenak direla. Bere larrua ere urdinska da. Katu-lehiaketetan, ile zuria, begi berdeak, eta gorputza gutxi gihartsua arrazaren akatsatzat hartzen dituzten.

### Gezurrezko jatorriak

Kartusiar hiru mota daude: arraza garbia direnak, egun bakoitza bitxiagoak dira, ez dute odol arrarorik; persiar urdinaren goranzko bat daukatenak; eta Inglaterrako urdin arbaso bat dutenak.

Dena den, denboraren poderioz, azken bi mota hauen desberdintasunak ia-ia desagertu egin dira, baina Ipar Amerikako elkarte batzuek nor bere aldetik klasifikatu ohi dituzte eta beren lehiaketetan berezko arauekin epaitu ohi dituzte, eta beren puntuazio batzuetan espezifikatzen dute: dirdirekin zilar-kolorekoak mantoan.



Khorassan katuak kartusiarraren antzekoak dira, hauexek Iranen agertu ziren. Khorassanaren kolorea gris bizia da eta bere izaera soziable samarra da.

Kartusiar jatorria gesurrezkoa da, baina jakin badaki frantziarra dela. Bere agerpenari buruz, teoria batzuk daude. 1558. Urtean aipatuta agertzen da jadanik, hipotesirik onartuenak, Monje Kartusiarren monasterioetan kreatuak izan zirela, esa-

# KATU KARTUSIARRA

ten du. Beste teoriak arrazaren jatorria Atlantikoko irla frantziar batean kokatzen dute -Belle-Ille Irlan- . Historialari batzuen kroniken arabera, katu polit hauek udatiar bat –madmoiselle Léger-ri- harritu zuten. Berak, katuen bikote bat Frantziara eraman zituen, eta han bere aukeraketa hasi zen. Frogatuta dago arraza zahar samarra dela. Izatez, Linneo eta Buffon naturalistek- XVIII. Mendean- mota desberdinatzat hartu zuten.

Kartusiarraren elikadurak ez du aurkezten arazorik. Haragia, arroza pixkarekin eta barazkiekin nahastu behar da. Astean behin erraiak eman behar dizkiogu. Haragia zati txikietan moztea gomendagarria da, izan ere asko murtxikatuz, arraza honen masailalbo tipikoak eratzen dira.



### Ardurak

Kartusiarra, beste katu bezala, kuxkuxeroa eta jostalaria da. Inoiz utzi behar diogu sukaldearen gainetik jauzi egitea, edozein egunean piztuta edo beroa egon daiteke eta, sukalde elektrikoa bada, batez ere. Tximiniatik at ere egon behar da. Inoiz ezin da jartzen su piztutaren ondoan trapuak lehortzen, izan ere jolasten duen bitartean, nahi gabe bota ditzake. Kumeei asko gustatzen zaie kable elektrikoekin jolastea, baina isolatzailea zulatzen badute kosk eginez, elektrokuta daitezke. Zainduta ez dauden aparailuak deskonektatu egin behar ditugu, eta kableak errespetatzen irakatsi behar dizkiegu. Istripu asko daude, batzuetan hilgarriak, gomak, botoiak eta objetu txikiak jateagatik, orduan, lurrean erorita dagoenarekin kontuz ibili behar dugu. Halaber plastikozko poltzak oso arriskugarriak dira, izan ere haiekin ito daiteke.

Landare apaingarri batzuek, hostoak, izerdia, edo fruitu oso pozoitsuak dituzte (katuentzat). Haien artean dauzkagu: philodendrona, diefembakiak, huntza, kaladioak, poinsetiak, heriotzazorriak, mihura, erramu arrunta, eta Solanun capiscatrum-a.

Beren ondoan uzten baditugu, lehentxeago edo geroxeago kosk egingo dituzte eta pozoituko dira. Landareak gustatzen bazaizkigu, landareen beste mota landutzea gomenigarria da.

### Felidoaren dieta

Katuek, pertsonak bezala, nutrizio-arazoak aurkez ditzakete, gehiegitzaz edo gutxiegitzaz. Jabeek, beren maskota mimatzeko, okerki jaten eman ohi diote, edo katuaren apeteak ematen dizkiote, edo oinarrizko osagarik ez dauzkaten dietak ematen dizkiote. Modu honetan, loditasunean edo gabezi-gaixotasun batean eror daiteke.

Dieta-arazoak, txikitatik agertzen dira. Titia kentzea eta gero, katu askok bere eguneroko errazio esne gustora hartzen dute, baina beste batzuk ordea ezin dute, adibidez arraza exotikoak bezala, siamdarra, hain zuzen ere. Esneak



# KATU KARTUSIARRA

siamdarrari beherakoak eragiten dizkio, izan ere, siamdarraren organismoak ez dauka laktasarik, hau da, entzimak laktosa absortzioa egiten duela (esnean dagoen gluzidoa).
Beste arrazak halako arazoak denboraren poderioz, edo boladaka jasatzen dituzte.
Erremediorik hoberena esnean ura botatzea da, edo ahuntz-esnea edo esne baporatua ematea. Kasu zorrotzetan, kaltziozko osagarriak eman behar dizkiogu, izan er, katuek substantzia hau behar dute, baita ernariak, bularreko kumeak eta kumeak ere.
Titia kentzea gainditu gero, katuak, xerrak edo oilaskoa janez posik egon daitezke, baina haragi gozo hauek ez dauzkate A bitaminarik, eta oso goiz sintoma defizitarioak agertuko dira, katu txikiengan batez ere. Kasu honetan garapena atrofiaturik geratzen da, eta batera, hezur batzuk gehiegi hazten zaizkie. Burezurrak bizkarrezur-muina bultzatu ohi du, eta ondorioa bezala, atzeko hanketan paralisia agertzen da. Burua atzerantz makurtu ohi da eta jarrera berezi bat hartzen du: “Astronomoaren begiradaren sindromea”.
Sintomak larriago bihur daitezke, eta gauitsumena, itsumena edo infekzio-joera sor ditzakete. A bitaminarik ezak, eme ernariengan, abortu espontaneoak, fetu-malformazioak, edo antzutasuna sor ditzake.
Normalean sintoma hauek desager daitezke eguneroko dietari bi edo hiru tanta bakailao-gibelaren olioa gehitu badizkiogu.

### Hausturakorra

Gure katuak haragia besterik ez badu jaten, kaltziorik eza edukiko du. Nahiz eta haragiak kaltzio samarra du, D bitaminarik ez dauka, eta eduki badauka fosforoa. Hesteek, mineral hau ondo ez dutenez hartzen, organismoak hezurretan dagoen kaltzioa hartzen du. Deskaltzifikazioagatik, hankak okertzen dira, eta zurtoin berdeko hausturakor bihurtzen dira, halaber, deskaltzifikazioak, bat-bateko paralisia, minez, hezur-bihurdurik sortzen ditu.
Gaitz honek, bularreko-emeengan eta hazkuntza- garaian, kopuru handiagoa dauzka.
Hauek kanpoaldekoan, osasuntsuak ematen dute, baina ekintzarik eza daukate, goiz ahuldu ohi dira edo minez herrenka ibiltzen dira. Tatamenduaren barruan, esne, kaltziozko, gibelaren dieta-gehigarriak eta beste jangai D bitamina ugariak daude.
Generalki, katuak gibelez edo arrain koipetsuaz asebete nahi ditu baina dieta hau oso arriskugarria izan daiteke. Gehiegizko D bitamina hartzen dutenek gehiegizko kaltzioa hartzen dute eta bere ehun bigunetan, igeltsua bezala ezartzen da. Halaber, gibelagatik, A bitaminaren gaindosi batek, artikulazioetan hantura mingarria eta herrentasuna sor ditzake. Eme ernariengan, kumeek sortzetiko deformazioak izan ditzakete.
Arrain koipetsuak oilo asegabeak ditu, hauek E bitamina oxigenatu eta hondatu ohi dituzte. Adibidez, hegalaburrak, zamo arruntak, edo sardinzarrak, sukarra, kolore txarra, anorexia eta mugikortasunen arazoak sor ditzakete.Trastorno hau zuzentzeko egunero dosi E bitamina eman behar diogu. Zamo arrunta eta sardinzarra gordinak jaten badira B taldearen bitaminaren defizita sortzen dute, izan ere, jangai hauetan badago enzima bat, zeinek B bitamina hondatzen baitu.



# MALASYAKO KATUA

Malasyako arraza nahiko berria da. Estatu Batuetakoa da, eta 1980. urtean ofizialki aitortua izan zen. Burmes-arekin desberdintasuna kolorean datza, eta Inglaterran Burnes deitzen zaio.

Jabe, familia, lagun eta kanporakoiekin oso maitekorra da. Dena den, elkarrenga-nako maitasuna izan behar da. Bere egu-neroko ohituran jokuak behar ditu. Zarata ez zaio batere gustatzen, baina bidaia egi-tea asko gustatzen zaio.

Hiru mota daude: urdina, urdin-grisa, oreintxuaren antza duena, platino edo gris-zilar kolorekoa eta marroi-horizka kolorea.

Guztiek begi horiak dituzte. Bere ilagea motz, finu, eta leuna da. Gorputza tinko





eta gihartsua da, hankak luze samarrak dira, oinak handiak eta biribilak dira. Bere buztana luze samarra da. Bere burua biribila da, sudurra motza, begiak biri-bilak eta haien artean urrunak dira, eta belarriak handi eta biribilak.

Akatzatzat hartzen dituzte: horiak ez diren begiak, bere ilagean orban zuriak, edo buztan makurtua.
Elikadurari dagokionez esan daiteke, haragia asko gustatzen zaiola eta ez duela behar dieta berezia, baina bere hazkuntza aldian, bitamina-konple-xuak ematea gomendagarria da.

Bere ilea disdiratsua mantentzeko eskularru baten bidez eskuilatu behar dugu.



# NORVEGIAKO BASOKO KATUAK

Orain dela urte asko, Odinek, betiko paradisua,ezpataz irabazten zuenean. Bere ondoan lagun basatia zeukan:" Norsk Skautt"-a edo Norvegiako basoko katua.
Mende batzuk pasa eta gero, 1837. Urtean gutxi gora behera, erdi basati katua bere maskota bihurtu egin zen. Urte batzuk pasa eta gero, Zenturia honen lehenengo herenan, hazleek talde batek ale batzuk pedigriarekin lortu zituzten eta haietariko bat, Oslon erakutsi zuten. II Mundu Gerra bukatu ondoren, arraza hau berpiztu egin zen eta "gatofilos" delakoen jakinmina konkistatu zuten, 1977.Urtean FIFE-en lehiaketan agertu zen. Gaur egun, Norvegiako basoan 350 katu baino gehiago erregistraturik daude, eta kopuru hau atzerrian handiagoa da. Pertsona askori katu hau, ematen duen pelutxe basatia, gustatzen zaie. Animalia gogorra da, eta hau normala da bizitzako baldintza horretan bizitzeko, ilaje bikoitza garatu izan behar zuen. Azpi-ilea bilotsua da, gorputzaren berotasuna mantentzeko balio du, eta ile luzea euriz eta elurrez babesteko. Koilare ugaria ere dauka. Urtero behin muda egiten du, baina buztan astuna geratzen zaio bere ilajea luzea dela erakusteko.Behartasunak zuhurra, trebea, azkarra eta ehiztari ona bilakatu du. Izugarrizko igokaria da, zuhaitzetara ez ezik, harri malkartsuetara ere igo ohi da ( atzapar sendoei esker).
Bere estandarren barruan kolore guztiak onarturik daude, kolore hauek begiekin harmonizatu ohi dituzten. Bere gorputza sendoa eta gihartsua, hanka sendoen bidez sostenitua izan da.
Nahiz eta leku irekiak asko gustatu, etxe batetan bizi daiteke,





haragia eta arraina janez, baina bere geneen barruan sen ehiztaria eramaten duenez, askotan bere janariaren bila joango da. Ez ditu behar zainketa asko, noizean behin bere ilajea orraztu behar diogu.
Ugalketari dagokionez, esan dezakegu emeak ama onak direla, eta beren kumeak adorez, babesten dituztela.

# ERRUSIAKO URDIN KATUA

Errusiako urdin katua, oso lasai eta lotsatia da, beti jabeentzako maitasuna erakusteko eta laket izateko prest dago. Nahiz eta bere arbasoak klima hotz zeuden lekuetatik etorri, berak etxeko leku epelak nahiago ditu, eta hemen neguan denbora asko ematen du.
Nahiz eta aspaldian Inglaterran, mota bat sortu, jakitego gogorik ezagatik hazteari utzi zioten eta gaur egun oso bitxia da.
Litekeena da, arraza hau “Arcangel”-eko Errusiako portutik etortzea, eta XIX. mendean Inglaterrara, Errusiako merkantzi untzi batean ekarritakoa izatea. Gaur egun ere, eskualde honetan antzeko katuak aurkitzen dira. Errusiako urdin katuari buruzko nahaste-borraste bat egon badago, ematen dioten izenagatik. Hasieran urdina edo Arcangel esaten zioten. Gaur egungo izena 1940. urtean hartu zuten. Baina batzuetan Maltako katua eta Espainiako urdina esaten zioten.
Bere ilagea eta pelutxezko hartzarena antzekoak dira, izan ere, azpi-ile dentsoa du. Koloreak grisaren tono guztiak izan daitezke, baina grisurdina da, arraza honi izena eman diona.
Bere gorputza luze, lirain eta gihartsua da, buztan luze batekin. Hankak argalak dira, oin txiki eta biribilekin. Burua obalatua da, sudurrak erdipurdiko tamaina du. Bere muturra ondo garatua dago eta begiak nahiko obalatuak dira. Belarriak, handi, biribil eta zorrotzak dira eta larrua ia-ia gardena da.
Zainketari dagokionez esan daiteke, erregularki eskuilatu behar dugula, eta egiterakoan ilea altxatu behar dela ez lehuntzeko.





Arraza honek dieta erruz behar du: haragia, arrainak, barazki egositak eta harrapakinak.
Akatzatzat hartzen dira: burua zabalegi bada, ile zuriak, orban zuriak eta gainkarga.

# SINGAPUR KATUA

Bere sorterrian "estoldaren katua" deitzen diote. Izen honek bere bizimodua ez ezik biztanleek daukaten katuenkiko maitasunik eza ere esaten du.

Singapurreko katuek belaunaldietan zehar bizitza gogorra eramaten zuten. Kaleetan basatiaren moduan bizi ziren, askotan estoldetan bizimodu honek ondorioak ekartzen dizkie gorputzean: haiek edozein katu baino txikiagoak dira.

Pazientziaz eta maitasunez, Singapurreko katuak  gure konpainia nahi lezake eta bere maitasuna eman liezaguke baina beti erreserbaz.

Bere kale-jatorriak edozein egoerari moldatzeko laguntzen dio, nahiz eta bizitza lasaia nahiago izan. Hasieran arraza hau mezprezatua eta ezikusiarena eginda izan zen, Amerikako hazleek arraza honetan interesa hartu arte eta ale batzuk inportatu arte. Nahiz eta Singapurren natural mota asko egon, AEB-etan bakarrik esagutzen dituzte punteaketa boli-kolorekoa marroiarekin, eta tigrearen larruaren antza duen kolore biko zuri eta punteaketa.

Bere ilea motza eta zetatsua da, gorputza txiki eta gihartsua, bizkarraldea nahiko makurtuarekin. Bere hankak luze samarrak dira, oin txiki eta obalatuekin. Buztana nahiko luze eta zuzena da. Burua biribila da, sudurra motza, begiak handiak, amanda itxurakoak eta lapranak. Barbula oso nabaria. Belarriak handiak dira eta biribilak puntetan.



Erregularki komenigarria da bere belarriak, eskularru baten bidez, uretan buztita, igurtzea.

Arraza honek ez du elikadura-arazorik, denetik jaten du eta. Bere kalelehenaldiko beste lagin bat.



# TONKINESE KATUA



Bere txokorik gustukoenetik, tonkinesek bere jabeei begiratzen die, bere begi urrunen zehar, amanda-itxurakoak, urdin-berdexka definezin-kolorekoa, eta mainontzia, ahotzaren tinbre adierazkor eta disdiratsu baten bidez, marraka egin ohi du -jolastera gonbidatuz-. Beti erne eta maitasuna emateko prest egoten da. Katu honek konpainia eta ematen dionari maite ohi du, baita zainketak ematen dizkionari ere.

Behar bada, tonkinesea katu etxetiarra izateagatik, katuetariko bat da zeinek murrizketa tipikoa bere konfigurazio fisikan aurkezten baitu, bereziki sentimen-eremuan eta sen-eremuan. Dena den, lekua mugitzeko behar du, eta bere atzaparrak ateratzeko eta ehiza egiten jarraitzeko idea, mantentzeko. Izan ere, joku guztiak mugimenduko behartasunaren islada bat, besterik ez dira.

Katu hau kuxkuxeroa eta kanporakoia, ekialdeko jatorritik, baina Amerikako diseinuaz, katu siamdarraren eta birmaniarren arteko gurutzatzeetatik sortu zen, eta berengan, katu bien nolakotasunik hobeak elkartzen dira.

Nahiz eta genetikoki siamdarraren txokolate-kolorekoaren antza eduki (orain dela 80 urte agertu zena), tonkineseak gen siamdar bat dauka eta beste bat birmaniarra eta bere itxurak bi arrazak nahasten ditu. Bere kromosometan hain amalgama du ezen ez baitu benetako kumeak, zeren eta erdia bakarrik, tonkinese arraza baita. Tonkinese kumeak arbasoen kumeekin elkartzen direnean, ahalbideak gehitzen dira. Hau dela kausa Elkarte Britaniar gehienek ez dute onartzen tonkinesea arraza bezala.

Ordea, Amerikan, 60- ko hamarkadatik CCA-k onartu zuen. 30-eko Hamarkadan, Ipar Amerikako hazleek katu honen hazkuntza -eskala txikian- egiteari ekin zioten, horrela hibrido batzuk lortu zituzten, “Urrezko siamdarrak” esaten zieten, baina ia-ia ezezagunak izan ziren.

### Bisoi baten ilajea

Bere herri-onarpena lortuz gero, pertsona askok, gihartsua eta erdipurdiko tamaina duen katu hau eta siamdar lirainaren eta birmaniar sendoaren arteko nahaste perfektua dena, adoptatzea erabaki zuen. Bere tankeran gauza guztiak nabargarriak dira; bere gorputzadarrak luzeak dira, aurrekoak atzekoak baino handiagoak dira, bere atzaparrak ahulak dira, obalatuagoak biribilak baino, haragi-multzoen koloreak bere ilaje dentsoarekin, leunarekin eta disdiratsuekin harmonizatu ohi du, gainera bere gorputzan bisoiarena bezala itsatsita dago. Manto honek erdipurdiko tamaina du, bere kolorea uniformea da. Beheko aldean tonu leunagoak ditu eta puntak nahiko zehaztuta daude, baina ez daude siamdarrarena bezain zehasturik..

Bere buruak erdipurdiko tamaina du, triangelu samarra da. Hantxe bi begi handia eta jakinguraskoa daude. Bere belarriak handiak dira eta sudurra txikia da eta stop samarra du. Mutur kontrakoan, buztana luzea da, puntan amaituta.

Tonkinesaren mantuaren koloreek, nahiz eta izenak desberdinak eduki, siamdarraren kolore-oinaldeen antza dituzte. Horrela, lau motak natura- bisoiari dagozkio: aleek, ile bero gorrixka, punta marroi-ilunekin aurkezten dituztenean; bisoiari ezti-kolorekoa, ile marroi-gorrixka bat, puntu marroi ilunekin definitu ohi duela; bisoiari xanpaina-kolorekoa, mantoa beixa eta puntu marroi argiak eta motari bisoi platino-kolorekoak, ile zilar-kolorekoa eta puntu ilunagoak sakabanaturik daukaten animaliak sortzen dituela.

Baina ilaje hau osorik hedatzeko, katuek hamasei hilabete baino gehiago eduki behar dituzte. Handik aurrera -bi urte arte- bere disdira hobetzen jarraitu ohi du, une horretan bere edertasun osoa lortzen dute.

# A U R K I B I D E A

**KATU SIAMDARRA** .2
Aurretik sumatu ezin diren erreakzioak .2
Elikadura eta zainketak .4

**EUROPEAR KATUA** .6
Otzandutzekoa erraza da .6
Borrokalariak, autoritarioak eta gorrak .8

**KATU PERSIARRA** .10
Loditasunaren arriskia .12
Persian eginda .12
Politak baina gorrak .14

**KATU BURMESA** .16
Arrazaren barietateak .16
Zainketak eta elikadura .18

**ABISIANIAKO KATUA** .22
Dietan dagoen katua .22

**ANGORAZKO KATUA** .28
Jatorri nahasgarri bat .28
Persiako katuaren aita .30
Turkiako Van-a, urretako angorazko katua .32

**BIRMANIAKO KATUA** .34
Barietateak, zainketak eta elikadura .34
Jatorri misteriotsua .36

**ILE MOTZA DUEN AMERIKAKO KATUA** .38

**HIMALAIAKO KATUA** .42
Izaerak eta barietateak .42
Arraza berri baten jaiotzea .44

**BALI-KO KATUA** .48
Gibela eta yorkeko urdaizpikoa .48
Lirainak eta gihartsuak .50

**KATU MAPATXEA** .52
Begi ezberdinak .52
Maskota maitekorra .54



**ESKOZIAKO KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .58
Inglaterran bazterturik . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .60

**JAPONIAKO BOBTAIL-A** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .64

**HABANAKO NABARRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .68
Ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .68

**EGIPTOKO MAU** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .72

**MANX KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .76
Etxeko ehiztari mantsoa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .76

**BOMBAY KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .80
Arra sendagoa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .80

**SPHYNX KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .82
Elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .82

**ILE MOTZA DUEN EKIALDEKO KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .86

**REX KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .90
Katuei koipea eman . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .90

**KORAT KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .94
Zetzako ilea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .94

**ILE GOGORRA DUEN AMERIKAKO KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . .98

**ILE MOTZA DUEN KATU EXOTIKOA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .102
Amak usainagatik . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .102

**SOMALIAKO KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .106

**ILE MOTZA DUEN BRITAINIA HANDIKO KATUA** . . . . . . . . . . . . . .112
**KATU KARTUSIARRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .117

**MALASYAKO KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .120

**NORVEGIAKO BASOKO KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .122

**ERRUSIAKO URDIN KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .124

**SINGAPUR KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .126

**TONKINES KATUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .128

**AURKIBIDEA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .130









*Fernando Pedro Pérez, 60ko hamarkadaren hasieran Bilboko auzo batean jaioa -Zorrotzan-, txikitatik naturaren deiadarra sentitzen hasi zen..*

*Oso goiz bere zaletasun, grina bihurtuta, eta gero, bere bizitza ulertzeko modu bakarra, Zierbenako portu txikian hasi zen -Bilboko Abran-. Orduko Zorrotzako apaiza urpekari aurrendari gasteiztarraren eskutik –Fidel Korta- egin zuen, Fernandok.*

*Goizeko bederatzietan lehenengo meza ospatu ondoren, udako egun guztiak, eguzkiak bere izpiak ikusten uzten zituenean, Fidelek bere ardurapekoarekin- Fernando-, eta bere Seat 600 hartuz, itsasorantz abiatzen zen. Hantxe, Fernandok itsasoaren sekretuak aurkitzeari ekin zion: baxurako arrantzaleek zekartzaten arrainak ezagutuz eta portuko aldapa berberetan saretik arrainak nola kentzen zituzten ikusiz, krabarrokaren arantzen arriskuak jakiteari hasi zion, arraien mimetismoa, arrain launak, labridoen kolore ederrak, esaterako, dontzeila eta karraspio atlantikoa, itsas aingiraren jatuntasuna…*

*Geroago, urpean igeri egiten zuen -birikaz- ,urpeko mundu liluragarria ezagutuz.*

*Hazten zen neurrian, itsasoaren grina gehitu zen, eta berarentzat, itsasoari eta munduko animaliei buruzko argitalpen guztiak opariri onenak ziren.*

*Goiz, Fernando eta bere lagunak alde hezeetako igelak eta tritonak begiratzera zihoazen baita sugandilak eta muskerrak harrapatzera ere. Bestetik, Kadagua ibaiak egiten zuen urmael batean - Zorrotzako bokaletik gertu- arranoei begiratzen zieten.*

*Pixkanaka-pixkanaka, izaki bizidunak gero eta interesgarriagoak iruditzen zitzaizkion EHUren Informazio-Zientziaren ikasketak bukatu ondoren ,Kasetaritzaren bi adarretan eta Publizitatean litzentziatu zen, -, baita Zuzenbide-ikasketan ere –UNEDen bidez-*

*1.990. urtean, Fernandok, biologo-talde batekin, -Galtzorian dauden Espezieen Defentsarako Elkartea-, sortu zuen -ADEVE-.*

*Elkarte honen bidez, Fauna eta Flora-ikasketa asko egin ditu, gainera Zoologia eta Naturaren buruzko ehun liburu argitaratu ditu. Duela gutxi, Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmen sinatu zuen eta Fernandok,argitalpen guztiak Internet-etik hedatzea ez ezik, naturaren kultura ezagutaraztea ere du helburua. Izan ere, Fernandok bizitza osoa natura-ikasteari ekin dio buru-belarri.*






*Liburu honen bidez katuen arraza guztien izaera, eta behar dituzten zainketak sasoi onean mantentzeko, jakinarazi nahi ditugu.*

A.D.E.V.E.